



Herri baratzan III. lehiaketa

Elkarrizketa: Jabi Aizpuru, itsasondoarna Suitzan
Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuak 2015
Ibilbidea: San Martin - San Gregorio (Ataun)



Udal hauteskundeak burutu ondorengoko aulki jokoak amaitu dira udal-tan, eta hurrengo lau urteetan alkate eta zinegotzi izango direnek eskeratu dituzte beraien eserlekuak. Aurrerantzean herriaren ordezkari izango direnei hauxe da herritarrok eskatzen dieguna: herritar guztiak gogoan izan eta ahal duten hobekien ordezkari gaitzela, herriarentzat hobereana dena egiteko asmoa izan dezatela eta borondate horrekin gauzak ondo egiten asma dezatela. Zorte ona opatzea besterik ez zaigu falta. Herritarrok badakigu ez dela lan xamurra beraien gain hartu dutena, eta herritarrok eskaini diezaiekegun laguntza oro ere ondo hartuko dutelakoan gaude.

29. ale honetan murgiltzen hasteko, gaien errebasoari ekingo diogu. Tarterik handiena Javi Aizpururi eginiko elkarrizketak hartuko digu, gazte-gazterik Itsasondo utzi eta lanak eta ikasketak munduan zehar eraman duten ingeniaria. Herriko jubilatuak ere, behin martxa hartuta, ez dute etxean geratzeko asmorik: txangoak, hitzaldiak, bingoa... Geldirik egoteko asmorik ez duten beste batzuk, berriz, herriko baratzazaleak dira; barazki eta fruitu fresko eta goxoak ekarteak mahaira ematen du nahiko lan. Herriko baratzen III. Lehiaketa burutu berri da, eta gero eta zaletasun gehiago dagoenik ezin ukatu. Beste edukiak dagoeneko ezagunak izango dituzue: Udaleko berrietan, Udalaren martxa; ongizatean, podologia zerbitzua; errejeta; lore-zaintza eta liburutegia besteak beste denak zuk irakurtzeko zain.

Eskola, haur eskola eta guraso elkarteak kideek, urtean eginikoak errebasatu eta burua jada ondo irabazitako oporretan dute. Guk ere oporrak hartzeko asmoa daukagu, irailean berriz ere gogotsu zuen etxeetara ale berri batekin itzultzeko. Oporrak dituzuenok gogokoen duzuen moduan disfruta ditzazuela; familiarekin, lagunekin, bakarrik, mendian, itsasoan, igerilekuan, herrian, hirian, festetan, atzerrian, etxean edo dena delakoan, egunerokotasunetik eten bat egiten saiatuta. Eta arrazoi ezberdinengatik oporririk izango ez duzuenoi, zer esan ba? Lasai, zuen txanda ere iritsiko da. Bitartean, eskapadaxko bat egiteko aukerarik ez galdu. Laster arte. ■



Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Denok gara sortzaile!
- 06-07. **Haurreskola:** Haur masajea
- 08-09. **Gazteria**
- 10. **Hip Hip Urri!**
- 11. **UEMA:** Euskeraren erabilera Itsasondon
- 12-20. **Elkarrizketa:** Jabi Aizpuru
- 21. **Informatika:** Windows (II)
- 22. **Aranzadi:** Baratzen lehiaketa
- 23. **Guraso elkartea**
- 24-25. **Ibilbidea:** Ataun: San Martin-San Gregorio
- 26. **Jubilatuak/Ongizatea**
- 27. **Auzolan/Gazteak**
- 28-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errejeta**
- 31. **Liburuaren txokoa / euskararen atala**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

Samerako bertsoak

Doinua: *Loreak udan ihintza bezela*

Urkiko festak pasa ondoren bertan uda ataria herriko eskola ixildu da ta umeen oporraldia, gurasoekin Lazkaomendira nolako ibilaldia hankak goxatuz masai saioa hartzeko prest daude ia.

Jubilatuak eskertzen dute podologa/o baten lana baratzak, berriz, estimatzen du txukundadezko afana, urtero gisan herri eguna helduko da guregana zeruko putreen itzalarekin tartekatu beharko dana.

Goierriin bada hainbat proiektu, lanbide eta ekimen aurrekontuek parte hartzera bultzatzen badirenen, Jabi Aizpuruk Suitza aldetik kontaktuko du dena den aurrerapenen molde berriak nola uzartu behar diren.

Udal erabakiak

Azken hiruhilekoan ere gai ugari tratatu dira udaletxean, hona hemen horien lapurpena:

- Udalak 2011n Kutxarekin hitzartutako 120.000 euroko maileguaren zati bat amortizatzea erabaki da. 50.000 euro aurreratu dira, eta orain itzultzeko 42.406,33 euro geratzen dira. Udal ekonomia ondo badoa, 2016an mailegu hori erabat kitatzea da helburua. Bestelako zorrik ez dago oraingoz.
- Udal eraikinen garbiketarako enpresa bat kontratatzeke deialdia egin ondoren, lehiaketa hutsik geratu zen. Ondorioz, Udalak udal-eraikinen garbiketarako sistema aldatzea erabaki du eta garbiketarako lanpostua sortzeko udal langileen zerrenda handitzea aurreikusten da. Oraingoz legediak kontratazioak egiteko jartzen dituen debekuak kontuan izanda, momentuz, lan-poltsa bidez erantzun zaitzen diren beharrei. Lan-poltsa osatu da eta Milagros Apaolaza da lanean aritzeko kontratatu den langilea.
- Kaxintane herriko tabernako kontratuaren amaiera izanda, lehiaketa berri bat egin da. Jendaurrean jarri ondoren, eskaera bakar bat aurkeztu dute, eta Rosario Noguera eta Maite Irastozaren esku geratuko da Kaxintane tabernaren ustiaketa, beste 5 urtez.
- Itsasondoko argiztapena hobetzeko eta argiteri publikoaren kontsumoa murrizteko lanak burutuko dituen enpresa kontratatzeke deialdia egin da, eta prozedura tramitatu ondoren, Aizkorpe Koop. Elk. aukeratu da, Itsasondon, lan horiek egiteko. Lanak uztailean hasi eta bi hilabetetan amaituko dira.
- Frontoiko eskuineko aldean dagoen lokala musika taldeek erabili ahal izateko araudia onartu da.
- Bestalde, Goierrin indarkeria pairatzen duten emakumei arreta egokia eta koordinatua emateko protokoloa onartu da.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Osakidetza eta Udaleko gizarte teknikarien artean prestatu duten Esparru soziosanitarioko protokoloa onartu da.
- 2014ko Udal aurrekontuaren likidazioa onartu da laburpen honekin:

2014ko abenduaren 31an izakin likidoak	375.229,78 €
Kobratzeko dagoena	19.271,03 €
Ordaintzeko dagoena	127.431,40 €
Superabita	367.069,41 €

- 2015eko ur hornidura zerbitzuko errolda onartu da. Zenbatekoa: 10947,81 €.
- Obrak egiteko 2 eskaera izan dira eta biak onartu dira.
- Lurzoru

urbanizaezinezko baserrietan bigarren etxebizitza bat ezartzeko aukera ematearren, egun indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan orokorraren aldaketa puntuala jendaurrean jartzea erabaki da. Proposamenak jasotzeko epea datorren abuztuaren 1ean amaitzen da.



Eskatutako laguntzak:

- Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzari Itsasondo 2.0 aldizkariaren gastuetarako laguntza
- Itsasondoko Haurren Herria.
- Gazteriako teknikariaren kontratazio gastuetarako.
- Lanbidek 2015eko martxoaren 25ean egindako deialdia jarraituz, langile baten kontratazio gastuetarako laguntza eskatu da.
- Foru Aldundiari diru-laguntza eskatzea, herri eskolako gela bateko berogailu sistema aldatzeko.
- Foru Aldundiari diru-laguntza eskatzea 2015eko gazte, haur eta nerabeen deialdian 2015ean egingo diren ekintzak finantzatzeko, eta teknikariaren gastuetarako.
- Foru Aldundiak 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalei zuzenduta egin duen deialdia ikusirik, dirulaguntza eskatzea Itsasondoko argiteri publikoaren eraginkortasun energetikoa lortzeko proiektua gauzatzeko.

Jasotako laguntzak:

- Herri eskolan obrak egiteko egindako eskaera, zati batean onartu da: haurren jolasguneko parkeko zorua aldatzeko eta ateetan babesa jartzeko. 2.104 euro emango dizkigute; %60a.

Udal berriaren eraketa

Joan den ekainaren 13an, goizeko 11:00etan egin zen maiatzaren 24ko hauteskundeen ondorengo Udal berriaren osaketa.

Bilera horretan hautagai atera zen zinegotzietako batek ezin izan zuen bilerara etorri, eta oraingo udala sei zinegotzietatik osatu da. Hona hemen izenak:

Asier Garro Sodupe	BILDU
Maddi Alberdi Salegi	BILDU
Erkuden Mendizabal San Sebastian	BILDU
Iñaki Aizpuru Oyarbide	BILDU
Alejandra Iturrioz Unzueta	EAJ-PNV
Aitor Elorza Gurrutxaga	EAJ-PNV

Oraingoz erabaki diren beste karguak honako hauek dira:

- Alkate ordea: Erkuden Mendizabal San Sebastian
- Diruzaina: Iñaki Aizpuru Oyarbide

Udal antolaketa eta batzordeak sortzeko bilera oraindik ez da egin. Hori egiten denean informazioa zabalduko da. ■

Denok gara sortzaile!

Ebidentzia bat dago: ikasle guztiak Haur Hezkuntzan hasten direnean, maila ezberdinetan bada ere, sortzaileak dira. Baina poliki-poliki ume asko gaitasun hori galtzen hasten dira. Zer egiten dugu eskoletan hori gertatzeko?

Kasu askotan, istorioak kontatzen hasten direnean, isilarazi egiten ditugu; oinez ibiltzen ikasi ondoren, denbora luzez geldi egoteko eskatzen diegu... Ume asko horrela hasten dira egokitu zaien errealitate berri hori ezagutzen eta egoera horretara moldatzen, eta horretarako, euren burua "erreprimitzen" eta sormenari ateak ixten hasten dira.

Garunaren eskuin hemisferioa gure eskoletan baztertuta dago eta ia ez da inoiz aintzat hartzen. Umeek hori segituan detektatzen dute, eta eskolatik airoso ateratzeko behar ez dutenez, ez dute erabiltzen eta gaitasun hori galtzen hasten dira.




XX. mendeko gizartea garunaren ezker hemisferioarekin, eta egungo gizartea eskuinekoarekin pareka daitezke; hau da, "eskuin hemisferioa" behar dugun munduan "ezker hemisferioa" prestatzen ari gara. Eskolak umeei eskaintzen dienak eta ondoren topatuko duten gizarteak ez dute inongo antzik.

Ezker hemisferioa datuena eta jazoerena da. Eskuinekoa, berriz, sormenarena eta irudimenarena da. Ezkerrekoak kalkulatu egiten du eta estankoa da. Eskuinekoa, berriz, berritzailea eta dinamikoa da.



Einsteinek esan zuten: “Irudimena ezagutza baino garrantzitsuagoa da.” Horrekin zera esan nahi zuten: ezagutza mugatua da. Irudimenak ez du mugarik. Ezagutzak bere baitan dagoeneko lortuta edo garatuta dagoena hartzen du bakarrik. Irudimenak, berriz, gure ametsetara hurbiltzen gaitu, eta hauek ez dute inongo mugarik.

Guk, Urkipeko Irakasleok, aitortu beharra daukagu ezker hemisferioan hazitakoak eta hezitakoak garela eta, urteetan, guk ere eskema horiek jarraituz funtzionatu dugula. Hala ere, azken urte hauetan jasotako formazioari esker, gure eskema horiek apurtzen joan gara poliki-poliki. Oraindik ere, asko daukagu esparru hori hobetzeko. Hortaz, eskolak urteetan egin duen hori gure ikasleekin errepikatzerik nahi ez dugunez, gure esku dagoen guztia jartzen jarraituko dugu ikasleen sormena ez zapuzteko. ■



Ikasturte bukaera

Ikasturtea bukatzen ari den honetan, aurtengo zenbait pasarte erakutsi nahi dizkizuegu. Momentu politak eta barregarriak pasa ditugu, eta haurrek azaltzen diguten bat-batekotasunarekin asko gozatu dugu. Zenbat gauza egiten dituzten eta zenbat aurrerapauso ematen dituzten gu konturatu gabe!

Aurten ere, haurrek material desberdinekin esperimentatzeari eman diogu garrantzia, eta horretarako, gelan genituen kaxetan gauza desberdinak jarri ditugu. Mahaian janari goxo-goxoak ere prestatu ditugu, ummm! Eta beraien barruko artista ere azaldu dute!

Gelan, txikienek mugimendua landu dute, betiere, jolasarekin tartekatuta; handienak, aldiz, psikomotrizitate gelan salto eta txilipurdika ibili dira.

Eguraldiak aukera eman digunean, kanpora atera gara oilo eta antzarrengana, eta eskolakoekin hamai-ketakoa jatera.

Eta behin indarrak hartu, haurreskola txukundu eta denak oporretara! Ondo pasa oporrak eta irailera arte!



Gogoratu oraindik ere Urkipe haurreskolan matrikulatzeko garaiz zabilatzatela. Informazio gehiago nahi baduzue, deitu 943164831 zenbakira edo etorri gu bisitatzerla! Ateak zabalik dituzue!



Haur masajea

Larruzala gizakion gorputza ia osorik estaltzen duen organoa da, ukimenaren adierazpen organoa, eta 900.000 zentzumen-erzeptore ditu. Larruzalaren bidez, oinarritzotzat jotzen ditugun hainbat beharizan asetzen ditugu: beroa, lotura afektiboa, sostengua, babesa, toxinen kanporaketa, kontentzioa, energia askatzea, maitasuna, bizipen kinesitesikoak...

Masajea gizakiak Antzinarotik erabili izan duen baliabide terapeutikoa da. Honen inguruko lehenengo idatziak Txinan topatu zituzten (K.a. 3.000. urtekoak).

Munduko kultura askotan haur masajea aspaldiko ohitura da, belaunaldiz belaunaldi jaso dena. Aipatzeko da, egindako ikerketen emaitzen arabera, nabaria dela umeen garapen egokirako maitasunean oinarritutako kontaktuaren beharra; haur masajea da ume eta gurasoen arteko hasierako kontaktua ezartzeko sistemarik atsegina eta errazena.

Haur masajea, haur eta gurasoen arteko komunikazioa sortu eta indartzeko baliabidea da. Masajearen bidez, gurasoek esku hartze zuzena dute bizitzan zehar seme-alabek izango duten osasun fisiko, psikiko eta emozionalean.

Laburbilduz, honako hauek dira beste batzuen artean haur masajearen onurak:

- Lotura afektiboak sortzen eta indartzen ditu.
- Koliko eta haizeek eragindako ondoeza arintzen du.
- Digestio aparatua mugimenduari mesede egin eta idorreria saihesten du.
- Estimulu ezberdinak eskaintzen dizkio umeari eta nerbio sistema garatzen laguntzen du.
- Umeak lo hartzea errazten du.
- Umearen negarra entzuten eta ulertzen laguntzen du.
- Gurasoek konfiantza eta segurtasuna sentitzen dute.
- Lasaitasun uea eskaintzen du.
- Banakako arreta uea sortzen du.

Itsasondan aukera izango dugu Haur masaje ikastaroan parte hartzeko. Ikasturte hasierarekin batera, iraileko larunbat guztietan masaje teknikak ikasi eta praktikan jartzera gonbidatuta zaudete. Ikastaroa 0-12 hilabete bitarteko umeak dituzten familiei zuzenduta dago. Guztion artean, errespetuan oinarritutako giro lasai eta atsegina sortuko dugu. ■

Informazio gehiago jaso nahi baduzue:

infohanditzenhanditzen@gmail.com

Maidar S. Navarrete Ugarte

AEMiko hezitzailea

652 745 673

Haurreskolako kuotak

Familiek Haurreskola irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagatik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuota-tan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean Haurreskola irekitzen den egun kopurua kontutan izan gabe.

Haurreskolako hileko kuotaren kalkulua, familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da.

Kuota tartea	Kuota tartea	8 ordu arteko kuota	5 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabeteko kuota
1	< 10.000 €	118 €	91 €	91 €
2	>10.000 € eta <15.000 €	180 €	140 €	140 €
3	> 15.000 €	208 €	160 €	160 €
AURRETIAKO KUOTA	91 €	91 €	91 €	91 €

Errenta estandarizatua, familia unitatearen azken ekitaldiko oinarri zergagarri orokorraren eta oinarri zergagarriaren PFEZ aurrezkiaren batura da, familia bakoitzaren baliokidetasun koefizientearekin zatituta **(*1)**.

Kasu bakoitzean eskuduna den erakundeak behar bezala lutzatutako dokumentuak egiaztatzen dituen egoerak bakarrik hartuko dira kontutan **(*2)**.

Izen emate epea itxi eta hileko kuotak kalkulatu ondoren, onartu eta ez-onartuen behin behineko zerrendekin batera egokitutako kuota tartea argitaratuko dira haurreskolan bertan eta **www.haurreskolak.eus** web orrian.

Erreklamazio epea amaitu ondoren, onartuen behin betiko zerrendekin batera, behin betiko kuota tartea argitaratuko dira.

Haurreskolak Partzuergoko zerbitzua erabiltzen duten familiek ezingo dute parte hartu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailaren beken deialdian. ■



Nerabeen atala

Hona hemen, gaztelekutik egin diren ekintzak:

1 Aste Santuko kanpaina

Master chef lehiaketan pastel goxoak prestatu genituen. Udaletxe aurrean elkartu ginen eta ez genekien Ainarak zer prestatu zuen. Sorpresa eraman genuen ikusi genuenean pastela prestatu behar genuela. Hurrengo egunean, Iker Mendizabalekin sukalde tailerra izan genuen. Errezeta pila bat erakutsi zizkigun:

- Illar eta kalabaza krema.
- Albondigak tomatearekin.
- Txipiroiak bere tintan.
- Bakailao tortila.
- Marrubizko batidoa.

Dena goxo goxoa atera zitzaigun eta gero dastatzeko aukera izan genuen, afari merienda bat eginez. Mila mila esker, Iker!!!

Azkenik, urteroko ohitura denez, bazkaria izan genuen gaztelekuan eta gero karretara joan ginen.

2 Murala bukatu dugu!

Ikasturte hasieran finkatu genuen helburu bezala eta ia bukatu dugu murala. Horretarako Jorge izan dugu maisu eta gustora gaude emaitzarekin. Ikusi ze dotore gelditu zaigun. Zuri ere, Jorge, mila mila esker!!

3 Festetako programen erakusketa antolatu dugu!

Herri bizitzako lan taldean festen gaia landu behar zela eta Ainararen laguntzaz hausnarketa bat egin genuen. Bertan, ikusi genuen, garai bateko festetan jende gehiago animatzen zela eta bururatu zitzaigun, programa zaharrak bilatzea. Artxiboan ibili ginen eta festetako programa zaharrak topatu genituen eta baita argazkiak ere. Hori dela eta, gure ideia erakusketa bat antolatzea izan zen. Festa komisiara jendea animatzeko asmoz antolatu genuen eta horrekin batera, herrian zehar, kartel batzuk jarri genituen, nolabait kanpaina txiki bat eginez. Orain festetako batzordean parte hartzen ari gara.

4 Egurra lantzen!!

Muralarekin batera ikasturte hasieran finkatu genuen egurra lantzen ere ikasi nahi genuela. Ikastaro bat egitea ezinezkoa izan da baina Gus-ekin solasaldia egiteko aukera izan dugu. Bertan, lan egiten duen txokoa ezagutu dugu, nondik datorkion zaletasuna, ze lan egiten dituen, nola lan egiten duen ezagutzeko aukera izan dugu. Gaiarekin jarraitzeko, Zegamako egurraren museora irteera antolatu genuen baina taldea ez zen atera eta beste baterako utzi dugu.



Eskola festa eta batidoak

Eskola festa zetorrela eta gure ekintzetarako diru pixkat ateratzeko batidoak saldu genituen. Horretarako lehendabizi batido desberdinak egiten ikasi genituen.

Haurrentzako pelikula antolatu genuen

Haur txikienezako pelikula emanaldia antolatu genuen kultur gunean.

Gauza guzti horiez gain...

Futbolin txapelketa, txistor jana, mahai jolasak egiten ditugu.

Orain zer?

Uda kanpainarekin gabiltza orain. Bilera batzuk egin ditugu eta jadanik egingo ditugun ekintzak prest ditugu: Patata tortilla lehiaketa, Sobron Abentura Parkera irteera (Zegama eta Segurako gaztelekuarekin batera), jolasak, afaria,... Izen ematea hilaren bukarean bukatzen da. Ekintzak, 10-17 urte bitarteko nerabeentzat daude antolatuta. Animatu zaitetz! ■



Argazki erakusketa



Gusekin saioa

Haurren atala

Haurren partehartze saioak

Partehartze urriarekin kezkatuta gaude...txikitandik hasi beharko ginatke lantzen hori...nola ordea?

Nola sustatu daiteke partehartzea herri txikietan?

Zergatik ez dute iritzirik haurrek?

Haurrek, haurren gaietan soilik eman behar dute iritzia? ala bestelako gaietan ere bai?

Itsasondon azken urteetan galdera hauek darabillkigu buruan.

Orain, hainbat lanketaren ostean, Haurren Herria egitasmoak lagunduta eta herriak duen dinamikan txertatuta (udal batzordeetan, alegia), haurren partehartze saioak gauzatzen hasi gara.

Nola landu haurren partehartzea?

HERRI BIZITZA LAN TALDEAK, hilabeteroko saioan, herriari eragiten dion gai konkretu bat lantzen du. Haurrek ere bertan partehartzea nahi da. Hilabeteroko saioetan, partehartzea sustatzeko errekurtsu bezala, jolasak eta elkarrizketa erabiliko dira.

Saioak, modu asanbleario batean egingo dira (uste dugulako asanbladaren bidez, haurrei adierazteko marko bat eskaintzeaz gain, hainbat ezagutza eta konpententzia barneratzen laguntzen diela).

Orain arte, festen inguruan eta udalekuen inguruan haurrei iritzia emateko saioak prestatu dira eta beraien ekarpenak jasota, horiek martxan jartzeko bidea egiten ari gara. Hain zuzen ere, haurrek beraiek aukeratuko dituzte puzgarriak eta udalekuetako programa ere beraiek osatu dute eta hori aurrera eramaten saiatuko gara. ■



Haurren partehartze saioa

Hip Hip Urri!

*Itsasondo ere
ekimenarekin bat eginda.*



Hip-Hip URRI! (www.hiphipurri.org) ekimena Donostian sortu zen 2013an, beste hiri batzuetan (Holanda, Berlin eta Riga) ospatzen den October Children's Month (www.octoberchildrensmoonth.eu) europar proiektuan oinarrituta. Ikertze Kultur Elkartea arduratzen da antolaketa lanetaz, eta Donostia 2016 eta Donostiako Udalaren babesa dauka. Egitasmoak hasieratik izan duen arrakasta

ikusita (2013an 3000 pertsonen parte hartu zuten eta 2014an 6000 pertsonen), erronka, hiriburutik lurraldera pixkanaka zabaltzea da, eta Goierri izan da bertan txertatu den lehenengo eskualdea; zentzu honetan, Itsasondok ez du zalantzarik izan Hip-Hip URRI!-rekin bat egitearekin.

Ekimena 6-12 urte bitarteko haurren eta beraien familien aisialdira eta kultur kontsumora bideratuta dago, eta urriko asteburuetan egiten da. Tokian tokiko kultur eskaintza aintzat hartu eta harekin koordinatuz, kultur erakunde, instituzio eta pertsonen arteko lanki-

detza sustatzea du helburu. Besteak beste, ekimen honi esker, eskaintza zabal hori doan izango da urriko asteburuetan adingabeentzat.

Proiektuan interesa duten kultur gune guztiak dute Hip-Hip URRI!-n parte hartzeko aukera: museoek, arte-galeriek, liburutegiek, antzerki-taldeek, kultur ondarearen espazioek, interpretazio-zentroek... Beraiek antolatutako jarduerekin egitarau bat osatuko da, eta programazioa Donostiako eta Goierriko lehen hezkuntzako ikasle guztiak (15.400 neska mutilek) beraien ikaste-txeetan jasoko dute irailean. Honen guztiaren bidez, haurren eta euren familien artean kultur jardueretan parte hartzeko ohiturak sustatu nahi dira. ■



Kezkatik ohiturak aldatzera

Nola bihurtu kezka herritarrek ak-tibatzeke indar? Hortxe dago gakoa orain. Itsasondoko hainbat herritarren artean euskararen inguruko kezka zebilen azkenaldian, eta ezinegon horiek bideratzeko asmoz tailerra antolatu zuten Udalak eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Batez ere, euskararen erabileran eragiteko nahia zegoen oinarri-oinarrian, eta horrek forma desberdinak hartu zituen. Hona hemen kezka sortarazten duten zenbait kontu: helduek erdarara jotzeko gero eta erraztasun gehiago erakusten dute kalean, haurrek gaztelania lehen baino gehiago erabiltzen dute, bertako hizkera aldatzen ari da... Mataza beretik irtendako hari-muturrak ziren guztiak. Nola liteke kontu horiek denak gertatzea Itsasondo herri euskalduna izan baldin bada betidanik?

UEMAko kideek gidatutako tailerrak bi saio izan zituen eta dozena bat herritarrek hartu zuten parte bertan. Maiatzaren 6an egin zuten lehen saioan arnaguneei buruz jardun zuten hasieran. Zer dira arnaguneak? Ba, euskara nagusi den eremuari deitzen zaio arnagune bat, eta Itsasondo bezalako herri euskaldunak bete-betean sartzen dira zaku horretan. Euskal Herriko euskaldun guztiarentzat oso garrantzitsua da udalerri euskaldunak egotea, berezko hizkuntzak herriotan duen indarrarekin beste guztiak ere elikatu egiten baitira: gune erdaldunagoetako jendeak euskaraz normal bizi daitekeela ikusten du, hizkera freskoaren adibideak topatzen ditu... Eta herri euskaldunetako hitzunek lotsarik gabe zabaltzen dute euskaraz egiteko ohitura Euskal Herri guztian.

Dena den, azken urteetako hizkuntza joeren datu zehatzak ere ekarri zituzten UEMAko kideek, eta datu horiek Itsasondoko gertatutako apaltzea nabarmena dela erakusten dute (ikusita taula). Lehen inpresioa pasa ondoren, datu horiek islatzen duten bilakaera gertatzeko



arrazoiak zeintzuk izan diren galdetzeko garaia iristen zen: zergatik gertatu da hori? Zergatik erabaki dute herritarrek erdaraz gehiagotan egitea? Faktore asko daudela adierazi zuten UEMAko teknikariek: azken 30 urteetako bizi-modu aldaketaren ondorioz, orain askoz gehiago mugitzen gara lanera joateko, erosketak egiteko, unibertsitatara joateko... Eta gure ibilbideak aldatu ditugun neurrian, gure hizkuntza ohiturak ere aldatu egin dira. Bestalde, hor dago etxebizitza berriek biztanlerian eragin dezaketen inpaktua ere. Azkenik, atzerriko emigranteek uste baino pisu gutxiago dutela azaldu zuten, askotan zabaltzen den ustearen kontra.

Maiatzaren 13an egindako bigarren saioan, herriko diagnosian sakondu zuten, bi multzo eginez: batetik, eskolaren inguruko ahulguneak eta, bestetik, herritarren kaleko erabileran eragin nahia. Gertatutako ohitura aldaketa horien atzean dauden arrazoiak identifikatu zituzten lehenbizi, gero konponbideak proposatu zituzten, eta



baita horien ardura nork hartu beharko lukeen izendatu ere. Azken finean, euskaldunen hiztun komunitateak mendeetan zehar egin duenari segida eman diote Itsasondoko herritarrek ere: egoera nola aldatu den ikusi eta aurrerantzean sendo bezain harro nola jarraitu behar den erabaki. Orain, kalean eragiteko ordua da, ahoz aho, buruz buru. ■

	1991	2011
Ezagutza	%82.5	%74.3
Lehen Hizkuntza	%76.7	%52.6
Etxeo hizkuntza	%71.5	%49.6

Jabi Aizpuru

“Jabi Aizpuru, 22 urterekin maletak egin eta munduan zehar abiatzea erabaki zuen Itsasondoarraren ibilerak”



Arrasaten Injeneritza teknikoko ikasketak bukatuta, 90. hamarkada hasieran Berlingo unibertsitatean lan eta ikasteko aukera baliatuz hamar urte igaro zituen Alemanian. Handik Suitzako Alstom multinazionalera salto egin eta energia plantak munduko txoko ezberdinetan sortzen lau urtetan zehar ibilia. Azken urteetan Suitzako Behamenton herrian bizi da, bere emazte eta alabarekin. Itsasondon orain gutxi izan da oporrak aprobetatzuz eta berarekin elkartzeko parada eman digu.

Martxan dau gure mikrofonoa eta bueno,...hasteko aurkeztu hire burue: nolaz jaiota, nun jaioa... hoi dana.

Jabi, betidanik, Luisen semea. Jaio, segurasko Beasaingo klinikan baiño bamos, Itsasondon, hasieratik Itsasondon. Txikitatik Itsasondon, eskola re aurreneko bosgarren urte arte hemen eskola nazionala gendun da han, garai hartan. Gero Ordizia jun giñen Urdanetako eskola, 8.urte arte. Institutoa re Ordizin ta gero, hortik, institutoa bukau ta geo ia Mondraua, injinero tekniko ittea. Hoixe, herritik atea, Ordizi herri da ta, herritik atatzte giñen aurreneko aldie hura zan. Gero Mondragon, han injinero teknika ta gero hura bukau ta gero hasi zan lana, lan mundun hasi beharra.. Ta pixkat gehixeo ikusteko gogoa, besteik etzan, ta aukera bat sortu zan, Cronez programa zan garai hartan izena. Zan aukera bat, ikasten ai zienak o bukau zuenak, atzerrin zerbaitt itteko aukera, ta, halaz, jun nintzen Berliñea.

Eon-eon, eon pixkat-pixkat.... Hor, urte asko pasa die ta tarte hortan... Ta igual, atzea bueltatuz... Itsasondon ibili ziñen nazionaletan eta ordun, garai hartan ia hasita eongo zan ikastola baita baiño bueno... bik batea... Noiz, ze urtetan jaiio ziñen? galdera ez bada oso atrebittue behintzet...

68n izan zan, aurtan inda 47, otsailen 21en ta guaiñ,... bazeon ikastola, baiño garai hartan gutxi gora bera erdibana banauta zeuden; zeatik ez dakit baiño ni nazionaleta jun nintzen. Etzeon diferentzie, behiñ eskolatik atata gero etzeon iñolako diferentzik batea jun o ez, o beste a jun, garai hartan danak batea ibiltzen giñen, ez giñen askota!

Gero gogorauko hitzean Ordiziko saltoa... hemendik Ordiziako saltoa hoi bai izango zala...

Hoi bai izan zala, zen batek uste zon garai hartan Ordizi zala gaiñea mundue! Bamos, askoz haundigoa herrie ta bealdiko gauzea izango zala pentsatzeek... Eta bueno, hasieran bildurrekiñ juten zan hasieran jendea, jun baiño lehen noski. Gero, Ordizi zan zentroa. Ordizin izaten zan Ordiziko jendea, Leorretakoa, Zaldibikoa,.. ta inguruko jende asko, Goierriko jende asko juten giñen. Bestaldekok Beasañea jungo zien ta alde hontakok danak jute zien Ordizia.

Ordun hala ibiltze giñen, konpleju punttugin, hor zerbaitt hor, intimidade zea horrekiiñ...

Hoi hala zan! Hoi dudipe hala zan, bateze hasieran. Bueno, gero denborakiñ jun itte zan baiño bai, jute giñen konplejukiñ, Ordizikokiñ bateze, Leorretakokiñ ta Zaldibikokiñ, baiño bai!... Betiko kontue, herrikoa ta herri haundixekoa, oseake, hirikoa ezin esangoiau Ordizikokatik baiño... Ta konplejue bazan! Ordizin mundue re pixkat diferenteagoa zan, ze esangoiat,... erdaldunagoa, e... zaile da esaten... Gutzat zan haundigoa,...

Zuek zenbat senide zeate?

Gu gea lau.. Ni txikiña. Ordizia jun zan aurrenekoa, beste aurreneko hiruek jun zien Beasañea, prailekin ikastea.

Ta bestela haurtzaroz guatzen zea zerbaitt, haurtzaroa Itsasondon...?

Haurtzaroa Itsasondon errega zan. Ez da guaingo eunen bezela. Garai hartan umek bakarrik ibiltze zien kanpon. Ez da guaiñ bezela gurasokiñ ibili beharra, ko-txek darella ta ez dakit ze peligro darella ta... Garai hartan haurtzaroa zan launekiñ ibiltzea kanpon. Besteik etzan. Telebixoi e etzeon. Nik ez dakit ze edade izango nun telebixoa allau zanen baiño ia urte batzuk bai. Ta etxen ordun zeñik e etzeon, jostailuik e hainbestere ez. Izaten zan lanbatetan, eskolan juntatzen zan ordubete o bi ordu goizetan jolasteko. Bealdiko jugetek atatzte zittuen ta hor, gutzat izate zan oso politte, jun ta jugete asko ikusi hor, herriko umedi guztie juntatze zan lanbatetan. Jugete normalak, gaur eun haspergarrik dienak baiño bueno!

Garai hartan ludoteka funtzio hori..

Hoi da, holako zerbaitt. Juntatze giñen bi o hiru ordu izate giñuzten jolasteko ta gero ia kanpoa berriz. Gero eun guztie kanpon pasatze genun garai hartan. Etxe barrun apenas. Ebi asko itte zonen juxtu-juxtu.

Gero esan dekena, Ordizin instituton bukau ta Arrasaten jun injeneritza teknikoia ittea... ze ata huan, ze titulazio ata huan?

Injenerio tekniko industrial zan titulazioa baiño espezializazio informatikoa. Informatika zan garai hartan ikasten genuna, gaurko informatikak ze ikusik ez dauke, garai hartan dana errexaxogoa zan... Guangoa ez diat segitzen. Hortik ez diat seittu ta ez det,... holako gaurko l-pad ta halakok ikusteittutenen desesperauta ibiltze naiz seittun. Ez da ne mundue.

Oso leku interesantea da Arrasateko unibertsitatea. Han ia, estudiatzten zenun bitarten lana itteko aukera zenukean. Ta lana itte zenun, in beharra zeon ta ondo zeon diru pixkat irabazteko. Ta lana montautu zeon ta estimatue zan. Aldameneko koperatibak emate zizkizuen lanak ordu berezitan hola klasea juteko aukera izateko ta,... erreztasun guztik. Erretasune eukiatik, lana goizeko bostetatik beatzieta izaten zan, o gauen seietatik hamarreta o hola. Jende merkea lan errexak itten. Hoi hala zan. Danak irabazten zuten. Gure gustoa diru pixkat, aurreneko dirue irabaziz eta haiek jende gaztea, lan itteko gogoa zeuken jende gaztea aprobetsatuz.

Bestela, ikasle bezela ona ez?

Ba,... hainbeste re ez, hainbeste re ez! Txarra re ez, baiño... beñie ez izugarrie. Dana aprobatu errex baiño ez, ikasle aurrenetakoa enitxok beñie izan. Etzan,... ez dakit,... etzan asmoa re, baiño... gauzak ikasten nittun behar nittunak ta beti aurrea atatzten nittun, destakatu.

Ordun han Arrasaten ia hasten zea, aurreneko kontaktue lan mundun...

Bi gauz batea iñez: ikasketak eta lana. Eta gero sortzen da aukeratuko bat.

Gero baita ere han Arrasaten itten zuen beste gauza ona laundu, geroako laundu. Ia estudiok bukau baiño lehen haste ziztaizuen aukerak eakutsiz... ta hemen, bertako aukera eakuste zizuen, asko ez, baiño batzuk bai. Gaurko eunen segurasko askok gustoa hartuko zuen hainbeste aukera. Guk garai hartan genuzken aukera haiñe izatea.

Gehienak izango zien aukerak lan mundu hortan, koperatiban munduan ez?

Bai, kooperatiba munduan, ez Arrasaten bakarrik, hemen e bai Urretxun da, etortze zien da esplikatzte zuen ze itten zuen da holako gauzak, oso interesantea. Ta gero zeon aukera kanpoa re jutekoa ta kanpon ikastekoa. Ordun, aurreneko aukera haundie hor izan genun. Estudiatzeko, ze estudiantu aukera etzan hain zaile, balio zon zerbaitt, ta injinieritzak balio do. Bestek oso politte die, gauza askoz polittagok dare baiño, zertako? Praktikoia zan balio zona. Ez do esan nahi beste gauzak ez duenik balio baiño gero bizitza errexexeo izateko zerbaitt. Ta injinieritza da hortako gauza

aproposena ta... Gustau, beste gauza eskore gustatu bai baiño.... Eta bueno, ba hoi izan zan aurreneko aukera baiño bigarrenkoa zan ia, bigarrenak ia pixkat bildurtuta 22 urtekiñ bukatu estudiok ta ia lanen hasi ta 65 urte iñ arte... Ordu ia aurreneko bildurre hor sartu zitzairen. Hoire ez da ba! Hoi re ez da ba nahi de-tena! Seittun lanen hasi ta 22 urtekiñ gaztea haiz ta... zerbait ikasi nahi dek... Ta ordun, horregatik erabaki nian, aukera hor zeon ta Berlingo direkzio bat zeon ta Berliñ garai hartan zan "muy in" esaten-zana. Juxtu-juxtu orduntxe iriki in zan Alemania orientala ta...

Hoi ze urtetan?

90 zan, 89n iriki zan harrisia. Gustau zitzairen idea ta egie esan hoixe, hoixe nahi gendun, lanen, seittu lan serio baten hasteko gogorik ez. Ta ordun jun nitxoan Berlingo unibertsitate batea lan ittea. Technische Universität Berlin izena. Lan ittea jun nitxoan han unibertsidaden lanpostu bastante izateittue lana itteko, ta ze lan in etzan inportantea egie esan. Jun nintzen Berliña juteatik.

Bai, aukera bazeolako Berliñea juteko ta hemendik atetzeko ez?

Baiño lana re oso interesantea tokatu huan. Zan e, alemanez esatea, lan-taldea esatea. Montatzeittue unibertsidaden enpresa txiki-txikik, lan-taldek, osea dozenerdi bat laun, ta itteittue inbestigazio lanak. Ta horrek ittentzon, zea basurak inbestigatze zittun, ze basura botatze zan. Guaiñ ittean separazio guztioik etzien itten ordun. Ordu hasten ai zien juxtu-juxtu. Ta Alemani nahikoa aurrea zeon garai hartan. Ta itten genun lana ze benefizio zeon hau bestengandik separaten haste bahaiz ta,... holako gauzak. Ta bateze inbestigatze genun funtzionatzeon o ez don. Pasatu nian bi o hiru urte junez Alemanitik alde batetik bestea beidatuz ze basura, jendeke ze basura botatzen zon beidatuz, ze ontzitan ze botatze zan.

Trabajo de campo esaten dana iñez!

Hoi dek, trabajo de campo iñez! Baiño oso interesantea! Hasieran desde luego hoixe zan.

Baiño in beharreko zerbait ta azkenen realidade bat behar bezelako analisi bat itteko, ez?

Bai. Ta nola unibertsidaden neon ta zea, denbora aprobetsatzeko beize estudiantzen seitzen nun. Hoike e zortzi ordu zien baiño han aldrebese da. Unibertsidaden

Seittun lanen hasi ta 22 urtekiñ gaztea haiz ta... zerbait ikasi nahi dek... Ta ordun, horregatik erabaki nian, aukera hor zeon ta Berlingo direkzio bat.

Pasatu nian bi o hiru urte junez Alemanitik alde batetik bestea beidatuz ze basura, jendeke ze basura botatzen zon beidatuz, ze ontzitan ze botatze zan.

ittea ez da denbora hemen bezela eskola jutea. Han unibertsidadea jutea da lan batzuk behar danen ittea ta esamiñak eta abar ittea, ez hemen lau ordu o zortzi ordu klasen eotea. Han aprobetsatu nun lan itten nun bitarten beste karrera bat itteko. Han, zea, injienero fisika in nitxoan. Ta hoi ia interesantea, hoi politexoa da Mondragon ikasi nuna baiño egie esan. Unibersidadea re diferentea dalako, zen han motibazioa gehio dau ikasteko zen ez dauke gizon o andre bati aittu beharrik lau ordun ze esplikatzeluzin baikiz eta ikasi beharra dauke, entendittu beharra ta ikasi beharra. Ta esamiñak die juten zea maixuna ta entrebista bat itteizu ikusteko ze ittezun o itte ez dezun. Osea, indibidual, indibidualizatuago. Ta hola gusto gehiokiñ ittea egie esan. Plana banun ta denborea banun, ze lana re etzan eunen 8 ordun in beharrekoa, baikiz eta juten nintzen leku batea han behar dan bezela ta gero, analizatzen beste hiru aste, baiño nahi nittun orduk, osea iñor etzan eoten kontrolatzen, baikiz eta ne denbora neuken analizatzeko ta aprobetsatuz, hoi in nun. Ta hola, gehiegi kontuatube hamar urte pasa nittun Berliñen. Oso epoka interesantea Berliñ, juxtu-juxtu irikitzen ai zanen, ta ni gañaz bizi nintzen orientala zan lekun, merkegoa zalako. Oriental zaneke hortan bizi nintzen da, juxtu-juxtu ni bezela, jende guztie ai zan mundue zer zan ikasten! Iriki zanen, gogo asko zeuken han bizi zanezan benetan irikitzen ai zan espero zulako beste alden dana askoz hobe izango zala.

Ni re izane, 91n izango zan, Berliñen, da harrittuta geatu nintzen ze, ze diferentek zan: bata hola argi-

tsue, hola bizie bezela ta bestea, beste alde, el este esaten zana, osea oso illune, oso tristea, oso... etxek eta danak oso... hue zan mundu batetik bestea pasatzea bezela, metro baten bueltan klaro!

Halaxe zan. Ni alde hortan bizi nintzen baiño lana besten itten nun. Osea Berliñen guaiñ egie esan hamabost urte die ez naizela Berliñen izan, ez galdetu guaiñ nola dan, baiño utzinunen ia dana askoz e bateago zan. Zuk illune ikusten zenuna guaindik bazeon baiño hurrutigo. Atzeago, atzeaka juten ai zan ta besten argie leku guztia sartzen ai zan. Zen Berliñ izan da berrogehi urtetan isla bat izan da. Han dirue sartze zuen, jendea ondo bizi zan, gustoa etzait iruitzen, han jendea bildurreekiñ bizi zan zerbait pasatzen bazan gerra fria hortan ingo zuen aurreneko gauzea, ingo zuen aurreneko gauzea hura hartu! bildurre hoi zuten. Ta jendea gustoa eukitzeko Alemanik, beste Alemani guztik hemen okzidentalak itten zon Berliñen diru asko inbertittu ta zeon teatro asko, zine asko, jendea oso lan gutxi inda oso ta ondo bizi zan Berliñen. Oso leku interesantea zan, artista asko, ta taberna asko ta holakok... Ta irikitzen ai zala izan zan oso-oso denbora politte ta interesantea. Gero, guaiñ aillatzen naizenen hor, ordun e kejatzen zien leno askoz hobeto zala dana noski. Ta guaiñ kejatzeie, nik aitzetenez, lehen askoz hobeto zala, osea betiko kontue. Ta guaiñ Berlin ai da bihurtzen beste hiri bezelako bat. Ta lehen diferentea zan. Baiño bueno, nahikoa ondo bizi izandu nintzen Berliñen da, unibertsidaden lanen da, pixkat estudiatu ta asko bizi, hoixe ingendun.

Momentuk aprobetsatu beharra zerean! Esan deken 90en hauntza jun hitzean da ditxosozko zaborren bueltan nolabaiteko azterketa bat ein zendula. Konkusiok? Ze klaro, analisi hoi emateo guaiñ honea pasa dala.

Guaiñ askoz aurreago gare. Ordu, oso diferentea zan. Guaiñ honek funtzionatzeo. Konkusiok zan hasieran etzola funtzionatzen. zerbait gehiau behar zala, Alemanin zeon sistema berri bat zan, hasi dana batea botatzetik ta bi, ez hirutan banatzea. Guaiñ oso diferentea ez dienak, zeon, montatu zan sistema bat, hik produkto bat eoste huanen segun ze paketetan zetorren, batzuk zeuden grunne punkt esaten ziean, zea

puntu berdea esaten zieran. Ta ordun puzten huan gehio pakete horrekatik, pakete, zea, enbortorio horrekatik eta ordun zeukean kontainer espezial bat hoi botatzeko ta, zea esaten zuen, hoi reziklau ittea. Itten zuen o etzuen... Egie esan, ez, etzuen itten. Baiño jendek etzon gehiegi botatzen. Baiño hoi etzan komeri haundiña. Komeri haundiña da intzala negozio bat, jendea bizi zan hortik ta gauza askotan pasatzean bezela, inzentibo batzuk emateittuk zerbait nahi dekekelako ta gero beste bide batetik juteie. Ta jendek, enpresa askoi hasi zien horrekiñ dirue atatzten, ahaliñe puntu berde, reziklatze etzien gauzetan puntu berdek jartzen hasten zien ta esaten zuen reziklatzen zuela ta gero ze itten zuen hoikiñ, ba segurasko erre gehiena... Aurreneko esperimientue etzan oso ondo atea, Baiño ikasi zan sikierare, kontue zala etzala inzentiboa iñ, plana ondo iñ ta funtzionatuko zola baizik eta pixkat gehixeo behar zola. Bi gauzak faillatzen zuen: txikina zan guk inbestigatzen genua, jendek etzola hasieran oso ondo funtzionau. Baiño hoi konpontzea erre-xena zan. Bigarrena zan intzuela industri bat sortu hortik bizi zana, ta hoi ia askoz zaillagoa izatea gero geatzea. Zen gero lantokik eta izurratzeillela hoi aldatuzkeo ta komerik asko izan zien urte batzutan Alemanin ta guaiñ egie esan ez dakit nola daun. Aurreneko esperimientuk etzon oso ondo funtzionatu, baiño ikasi asko in zan.

Bueno, hamar urte pasa ta geo unibersidaden, Alemanin, Berlinen,... salto, beste salto bat...

Bai, sortu zana zan ia bigarren karrera bukauta neuken ta ai nintzen unibersidaden maisu bezela lan itten, bi o hiru urte namazkin han Berliñen bertan. Professore katedratikok izateittue laguntzaillek klasea emateko ta hoitako bat bezela ai nintzen. Baiño ia aukeratu beharra zeon. Hortan urte gehiegin aitze bahaiz geo ia ez daukek atatzek. Ta aukeratu nun enula hor geatu nahi ta egie esan bueltatzeko asmoa nun. Ta bueltatu baiño lehen hasi nintzen pixkat beida ta pixkat mundu gehixeo ikusteko gogoa re banun, ta launen bitartez bukatu nun multinazional baten lanen Suizan. Lana nahiko politte zan, mundun zehar bidaiatzen ta argin plantak martxan jartzen. Hor injien-ero asko behar izaten zittuen ta holako lan baten. Ba esan nuen, bi o hiru urte iñ, ikasi, zen unibertsitatetik enpresa pri-

Inglaterran e eonitxoan, Estados Unidosen e bai, nun gehio,... Txilen e bai eon nintzen denbora askon, Asian e askotan, Taiwan, Tailandia, Singapur,... hoi danak. Dubaien e bai, hola,... beti bi o hiru hilabete. Afrikan, Afrikan Argelin bakarrik baiño hura motsa izan huan. Ta gero European bai, bai... Zea, Andaluzin e bai, eon nitxoan, Mexikon e bai bastante,...

bada pasatzea ez da re haiñ errexa, zen hemen haste haiz hoge ta hamar urte nintan ia ta ta jute haiz ta ze in dek ba guaiñ arte?, ta unibersidaden lana in diat. Ez da referentzi onena, ez...

Esperientzie eskatze baitue!

Baiba! Esperientzie eskatze hue ta hor ezautzen nun laun batek esan ziten juteko galdetzea, pauso ona dala, zen hola asko biajatu nahi duenak ta hainbeste re ez darella ta,... aukera ona ziela, ta lan esperientzi oso ona... ta egie da. Han hasi nintzen ta hola jun nintzen Suiza. Ez Suiza jun nahi nulako baizik eta lan on baten billa nenbillelako.

Zein da enpresa hori? Multinazional hori?

Alstom, frantsesa, baiño Alstom zeon Suizan beste baten zati. Berez zan ABB ni jun nintzena, baiño geo Alstomek eosi zon ta guaiñ beste batzuk eosi nahi gaittue baiño bueno, hoi beste kontu bat da. Berez, enpresai teknologie zeukena zan ABB enpresa suizar bat ta hoik itteue mundun zehar zea plantas de energia bildu ta hoik martxan jartzea zan lana. Osea zan lana juten ziñela eozein lekua ta bi o hiru hilabete, eoten ziñen martxan jarri arte ta aillau ta seittun, jun nintzan Nueva Zelanda hiru hilabete pasatzea.

Aurreneko biajea ta Zelanda Berria, jole!

Hala izan zan! Oso leku politte. Baiño hangok e bizi die pentsatuz darella mundun beste puntan da handik ata nahi duela. Danak handik ata nahi due. Australi daukie aldamenen ta hoi etzaie gustatzen. Baiño oso interesantea izan zan ta hoi, bentaja nun, plantak oso modernok zirela itten giñuztenak. Ta ordun, oso moderno hoik leku interesantetan bakarrik montatzeittue oso garestik dielako ta.

Hoi ze izango zan, presak eta halakok ittea o bertako motorrak?

Hoik gasaki ibiltzen diren turbinakiñ, kriston turbinakiñ. Etzan hidroelektrikoa, zan gasa, ziklo konbinatu. Ta pasa nittun hiru hilabete han, gero handik Kanada, ta Kanadatik Argentina, ta... nahiko ondo, egie esan, mundue ikusiz. Ta bentaja hoi zan. Juten ziñen hilabete batzuko ta ordun, ez da herrie ezautze huela, herrie ezautzeko han bizi behar dezu, baiño pixka-pixkat ikusten zendun. Ta hala inittun lau urte hola biajatzu.

Ta zenbat herrialde pasau? Zenbat gutxi gora behera?

Ba, hoge ta o hola. Urtero bost sei bat bai. Inglaterran e eonitxoan, Estados Unidosen e bai, nun gehio,... Txilen e bai eon nintzen denbora askon, Asian e askotan, Taiwan, Tailandia, Singapur,... hoi danak. Dubaien e bai, hola,... beti bi o hiru hilabete. Afrikan, Afrikan Argelin bakarrik baiño hura motsa izan huan. Ta gero European bai, bai... Zea, Andaluzin e bai, eon nitxoan, Mexikon e bai bastante,...

Batzu-batzuk bai...

Bai. Urtero bost o sei zien... izaten zan lana nahiko gorra, osea eunero ia hamabi ordu ta gero bi o hiru eun libre, baiño ez beti igandetan, osea tokatzen zanen. Ta ordun biajatzeko aukera izaten zendun, ingurue pixkat ezautu ta bueltau ta... Hala lau urte in nittun da... Baiño ia edadea aurrea juten ai zan da hogeita hamalau urte zien ta ia hortan e, aukera bat hartu beharra daukezu... Ez bazea garraiz atatzten, geo hor jubilatzen zea! Hor urte batzuk ittea, lau-bost-sei urte ondo zeok, ta gero seitzteare ondo zeok baiño ordun ez daukek atatzek. Ta bueno, ordun erabaki nian ez seitztea, ta gero gaiñea ezkondu in nitxoan, han Suizan,...

Bertako neskan batekin?

Ez, andrea kolonbiakoa det baiño Suizan ezautu nun. Han enpresa berdiñen lanen ai zana. Ta hala izan da ta ia ezkonduz geo bizie aldatzea, ezin dezu... Suizan aurreneko lau urtetan, ez dakit, urten hilabete ingo nun danea, Suizan bertan, beste guztik kanpon bueltaka. Ta geo ia, nola ezkondu nintzan ta ez nun lan hoi in nahi, ba ia enpresa berdiñen lanak billau nittun barrun beste gauzak itteko. Bat o beste probatu nittun ta guaiñ ai naiz komertziala bezela, enpresa berdiñen komertziala bezela.

Ordun guaindik bihurtzen da ibiliko haiz?

Bai, baiño ez da berdiñ. Guaiñ bihurtzekotan hiru-lau eunetako. Jute haiz, zerbait itteek ta bueltatu itte haiz. Ta gero, beste denbora guztiñ bertan geatze haiz. Ta nola proiektu haundik izaten dien, ez da beti leku batetik bestea, baizik eta urten hiru-lau proiektu itteittuk, gehio ez, ta hiru-lau lekuta bihurtzen dek ta gehio ez, baiño bastantetan leku bakoitzea noski! Baiño ez da bizimodu berdiñe. Osea, askoz errexagoa.

Baiño lan izango da responsabilitate-deko lan bat ez?

Bai, hoixe!

Ze azkenen hi haiz pixkat enpresa horren lan billatzailea nolabait esanda...

Bai, hoi hala da! Responsabilitatea bai. **Fabrika hortan lan itten don zenbait jendentzako hi haiz referentzie igual momentu baten behintzet...**

Bai, baiño nahikoa kontrolauta dau, ezin dek nahi dekena iñ. Osea, numero haundittuk baiño ez da gauza txikik saltzea baiño zailagoa. Da berdiñe. Guaiñ numero haundik dienen diferentzi bakarra da kontrola gehio daukeela, jefek gehio beida ze itten deken o ze, baiño bai, responsabilitatea dauke, ze azkenen hi jute haiz eosi nahi donan aurrea ta harekiñ hitzeitea ta hik konbentzitu behar dek komeni zaiola. Bai, responsabilitatea baue, interesante re bada, baiño ohittu itte haiz, azkenen, bai jende askon lanak hik in dezakenañi zerikusie baue baiño hik hire hobena itteek ta pentsatzeek beste batek, nik ezpaia lortzen beste batek ere segurasko etzola lortuko.

Bai, bueno, gero emangoizkik satisfaziok?

Bai, funtzionatzeikenen bai noski, baiño bueno hoire... satisfazioa da, bueno, hau in diat ta guaiñ beste lana hartukoia, besteik ez da... ez da gaur denbora asko pasatuat ta ia dana kontentu zeok...

Holako lanpostu baten, pentsatzeiat erlazonauko haizela jende inportatekiñ ez?

Segun ze,...

Inportatekiñ esan nahi det herrialde batzutan igual ez haizela ibiliko teknikari batekiñ baizik eta agintari politikok ta tarten sartukoie ta...

Herrialde batzutan bai, adibidez azkenen... guain dala bi urte Nigerian ibili ni-

txoan ta han ia negoziatzen zuzenen hemen lehendakarie izango huanakiñ. Ze han dana politika dek! Lana politika ta... Baiño gehienetan negoziatzeek enpresako jendekin, o bankukiñ, Gure enpresan e nibelak zerek, hoi hola dek negoziatio baten. Ta dauke aurren eoten dana lana eginez ta gero atzen, azkeneko momentun gauzai baimen ematen diona, edo ez.

Ta bai, oso-oso lan interesantea da,...

Geo, Alstom e bada Cafeko zea, kompetentzie ez?

Bai, baiño azkenen Alstomek sekzio asko dauke. Nik trenak itten dituztenak ez ditut ezautu re itten, baiño bai,...

Trenan mundun ibiltzen dan enpresa bat da ta...

Baiño zati horrekiñ nik zerikusik ez dauket. Ta guaiñ, aldendu behar gaittuk, usateiat eosi behar dittuta Amerikako konpaiñi batek, General Electric gu eosi nahien dabil. Guaiñ merkatue ez dau izugarri ondo ta holako momentutan ba batzuk bestek eosteittue...ikusiko deu ze pasatzen dan. Ta ordun, hor geatuko da beste multinazional bat ta ikusiko deu, ikasiko deu nola funtzionatzen dun, pixkat diferentea izaten da ta.

Bueno, lehen esan deu ba hasieran jute haizela Berliñea hogeita bi urtekiñ ta karo, pentsatzeet ordun e ez hitzeala jungo epe zehatz batekiñ... Bueno, pasakoittu bi urte, o lau urte, o bost urte, baizik eta jungo nauk ta ikusikoiat ze martxa...

Ez, jute haiz asmo batekiñ, plan batekiñ jute haiz. Ta nik plana nun, jun, aprobetsatu denborea alemana ikasteko, nola lana bauketen, baiño ez bizi guziako dan enpresa batekiñ, ingoizkiat sei hillaibetegehienea urte bat, hoi zan nuen plana eta geo bueltatuko naiz. Jun nintzen ta sei hillaibetea guaindik ne alemana etzan behar bezaiñ ona. Mesede earra izangoiat geatzen banitxok! Geo, urtebete pasa zan da, guaiñ oso ondo itten diat alemana ta guaintxe jun behar ahal nitxok? Holaxe zan! Ta ia alemana pixkat bakienez ze ingoiat bueltau o guaiñ hemen unibersidaden nau ta estudiatu. Ta hola izan zan. Aukera izan zan bueltau o alemana aprobetsatuz zerbait gehixeo itteko. Ta behiñ estudiantzen hasiz geo ia bukatu arte.

Pentsatzeiat hemendik jungo hitzeala o beste ikasleren batekiñ o bakarrik ?

Ez, bakarrik.

Ta horrek etzian hola pixkat,...

Hogeita bi urtekiñ, ze bildurre hogeita bi urtekiñ... Hartu maleta bat ta trenen Berliñea jun nintzen Hendaiaetik. Bai, edadekatik besteik etzan! Nola gaztea nintzen, ta baukezun denborea gaizki atazten bada re, ... Gaizki atazeko zertan kaltea?, buelta in beharra ta beize hasi beharra, ezer galdu ez, galtzeko baterez. Irabazteko bakarrik. Ta gero, denbora pasa zan. Han ibiltze haiz jendekiñ ta beste leku batzutat etortzeienak, ta haiñ kontue diferentea da, aurrea ata beharra daukate. Garai hartan, o Sudameriketatik etortzen zienak, o Afrika aldetik etortzen zienak o, holako jendea ezautzeittuzu ta haik ez daukie bueltatzeko aukerarik. Haien situazioa askoz gorragea da. Hi jute haiz sarekin, ta... baiño, bai, bildurre pixkat bai noski, bildurrekiñ jun nitxoan baiño ez da benetako bildurre, ze bakik zerbait gaizki ataz geo, bueltatzea daukala, ... telefonoik etzeon bizi nintzen etxean, mobilik existitu ere ez, garai earrak zian! Gañea Berliñen orientalen telefono bat eskatze huan etxen ta bi-hiru urte hie jarri arte. Ta zeon kabinak barrio guziako dozana erdi bat ta ordun hotseitte nian etxea astero esanez ondo nau,...

Zenbat urte Suizan ia ordun?

Bi millan aillatu nintzan, laister hama bost urte.

Guaiñ pixkat nolako dan bizimodu Suizan. Nik askotan aitzeet, jo Suiza da! Suiza da!...

Suiza da hemen bezela, jendea danetik. Jenden bizimodu, hain diferentea re ez. Han e famili asko bizittuk bere kontun da berea iñez. Beren negozio txikie ta... Gero gauzak itteittue dana igualtxu xamarra. Zea elurreta juteittuk danak bakaziok dazkebenen, elurreta, ta jendea gauen ez da gehiegi atazten, gazte jendea bai, baiño esan nahi det behiñ edade batetik aurrea jendea ez da gehiegi atazten. Eske, ez dau diferentzi haundik, ez dau diferentzi haundik! baiño, ... pentsatzen hasten naiz zein dan diferentzie, eske ia hogeit urte die hemen ez naizela bizi baiño... ta konparazio bat itteko ez dek erreza. Han kanpon jendea gutxixeo ibiltzeek baiño hango egualdikiñ ez dek harriztekoa! Ze han jendea kanpoa ateratzek zerbait ittea, ez egotea. Bueno pixkat euzkie atazten donen danak terraza. taberna gehiegi ez dago, kanpon eon ezer in gabe han ez da gehiegi ikusten. Hoi hemen igual geo ikustea. Han

jendek zeinik ezpauke, han saiatukoa zeoze billatzen, eozingauza, hobik eta... Bestela ez do itxura ona itten jendea kanpon eotea exeita, zea,... mentalidade kontue da.

Ze askotan hemen, bueno guaiñ politikoki baiño gero re bai, ez dakit, inkluo lehenengo sektorekin lotuta re askotan ba nahi izaten da, ez dakit, eredu bezela jartzen da hau, ba lehenengo sektorea. Hemengo baserritar bat hauntza beida eoten dalako o esaten zaiolako hue dala kixton ejemploa, ta holako zerbait planteau beharko zala hemen,... egie esanda ez dakit... haiñ ona da, haiñ ondo daun adibidez lehenengo sektorea?

Han gauza asko hobeto itteittue. Bateze sistema hobea da, ze responsabilidadea askoz berago daulako. Hemen responsabilidadea goitik behera eroitzea; han responsabilidadea bea, adibidez, zergak, zergak berez hirutan zatituta zeudek. Aurrenoko zatie herrira, ta herrik horrekiñ bizi beharra dauke; bigarren zatie juteek kantoia; ta hirugarrena juteek gobernu zentrala. Gaiñez ez die berdiñek, txikina gobernu zentrala juteek. Ta, ordun, bakoitzek diru horrekiñ bizi beharra dauke. Dirue ez da goitik bera juten, juten da beti gora. Horregatik Itsasondo bezelako herri batek Suizan ez dauke bate posibilitadeik bizitzeko. Zen seireun launeko zergakiñ aber ze ittezun. Herri txirik, adibidez Suizan Altza, Arama, Itsasondo ta segurasko Ordizi, danak batea eongo zien. Zergaitik? Bestela ezin deikelako bizi.

Ordun, ez da etortzen goitio ezerre? Goitio oso gutxi, oso gutxi, zen inbertittu behar dan guztie pasatu beaittu barrera asko ta gustoa ez badau baten bat, esanez Legorretako bat gustoa ez badau hemen diputaziok dirue inbertittu zan in ditzazke firma batzuk bildu ta botazio bat iñazi Gipukoa gutzin, in ez dadin. Osea, dirue jutea betik gora ta ez goitik bera, ta horrek gauza asko aldatzeittu. Responsabilidadea hik dauke hire dirukiñ ta ez da eskatzea goitik bera. Horregatik gauza askok diferente funtzionatzen due. Ta ez da hoi bakarrik, osea jendek dauke berez responsabilidadea gehio, gero referendum esaten zaion horrekin. Gobierno zentralak Suizan botere bazeuek, baiño jendei gustatzen etzaion zerbait in nahi baldin badu seittun oso zaia dute. Ta



Erresia botatzen hari zireneko

konstituzio kontu hoik hemen guaiñ oso modan dare, konstituzional hau ez, Jendek nahi bado, firmak bildu, ta seittun referendum in beharra dauke hainbeste firma betezkeo. Esan nahi diat, guaiñ Katalunian gertau dan hoi Suizan seittun konponduko zan. Botazioa ingo zan ta konpondu, bueno, konpondu ez dakit ingo zan, baiño hurrengo pausoa liberatu bai. Etzan iñor geatuko esanez ez da konstituzionala eta ezin da.

Maila hortan esatea inkluo konsulta ta referendumak in izateiela urtean zehar.

Bai, izaten die asko urten zehar. Adibidez, in nahi zuen inbertittu autopistan... Patzeittuten urten autopistak ta ibili nahi baldin badek kotxe bakoitzek marka bat eosteik ta horrekiñ, berrogei euro baka-rrittuk, Suizako autopista guztitan ibiltzeko. Osea, suizontzat, un txollo. ez dek diru asko ta horrekiñ funtzionatzen do. Dana mantentzeittue horrekiñ. Guaiñ in nahi zuen zerbait haundittu ta segurasko ona izango zan politikok in nahi zuena. Harta ateratzeko biñeta 40 eurotik 100 eurota igo nahi zuen ta horrekiñ inbersiok haundittu ta ez dakit nun autopista berrik ingo zittuen. Ta firma batzuk bete zittuen, ta botazioa in zuen ta eze-koa, ta iasta, sakabo, ez dau itteik! Autopista berrik ona zien o etzien ez dakit baiño pentsatzeet bentaja batzuk izango zittula ta desbentaja batzuk e bai, baiño jendek esan zon ezetz, segurasko leku hartan bizi zienak esango zuen, jo, ez dau deretxoik, baiño beste guztik,...

Esan nahi zu hoi ona dan o ez ez dakizula baiño emateunez herritarrak baukiela, hitza baukea, ta ez da gutxi!

Hitze asko daukea. Guaiñ adibidez Suiza Europakiñ nahiko tratadu onak dauzke ta nahiko ondo bizi dala iruitzen zait nei ta jende askoi. Baiño referendum bat in zuen esanez danak bukatu nahi zittuen o ez, ze Suizan e interesak dare ta adibidez, jende batzui ez zaie komeni inportazioak izatea, beste bai, osea arazo guztik leku guztitan bezela konplikatur die. in zuen botazio bat ta esan zuen tratadu guztik hoik moztu in behar duela ta berez negoziatu in beharra darelata berez etzaizkielako gusatzen ta, lehen bezela. Ta ordun nik ikustet Suiza herri txiki bat Europa guztiri esanez guaiñ berrize negoziatu behar deu ta zeoze hobea eman behar diazu. Horrek ez do beti ondo funtzionatzen. Nei ez zait iruitzen oso ondo atakoanik jugada hoi, arriskuk dauzke. Bestela hemen ikusten deun bezela re arrisku asko bauzke hoi ez ittea. Esan nahi det, sistema perfektok ez dau baiño behintzet han itten danak, responsabilidadea daukenak, gero kontsekuentzik eamateittu, ez da beste batzutan bezela, desizio batek ta kontsekuentzik bestek, desizio ta kontsekuentzik nahiko batea juteittuk.

Eske karo, ez dau Komunidades, Europar komunidades barrun ez daula nahiz ta European eon...

Hor e in zittuen referendum batzuk sartzeko baiño ezezkoa, hola jarraitu nahi duela.

Hi han eongo haiz ia suizarra bezela, ze bertako...

Ez, pentsatzen ai naiz baiño guaingoz ez. Ez da horren errex.

Hortako suizok e izangoie...

Ez, ez die oso jenerosok gauza hoitan ez die.

Pentsatzeiat izangoittukela kanpoko jendearekiko...

Jendeak bakoitzek beidatzen do berea ta botazioa daukenak askotan ez do nai banatzea. Bakoitzei bere etxen galdetzen baiozu zaitu nahi don beak daukena... ta alde hortan Suiza nahikoa atzea da dau o konserbadoreagoa beste herri guzti asko baiño. Hala da.

Hik adibidez ezin dek bozkatu ez guandio?

Ez. Ni han nau Suizak e benefizioa atateulako nere lanakin ta nik e nola benefizioa atetzen deten danak gustoa, bestela kanpo. Herrintzat ekonomikoki oso ona da, moral aldetik ez dakit hain egokia dan.

Ikusuntu ekonomiko batetik bai.

Hoi da, bestela ez. Ta Europako kontu hoik komerik daukie ze Suiza saiauko da sartzen, haiñ ondo ez dijoanen, beharra daukenen, ta hoi ez da une egokie izaten negoziatzeko. Danak ditue alde onak ta txarrak baiño dana batea hartuta, nei iruitzen zait responsabilidadea, gizartea, kontsekuentzik dauzenak hoi dala oso sistema ona ta horregatik Suizak nahiko ondo funtzionatzen du. Hoi da diferentzi haundiña. Ez jendea, ez mendik, ez ezer... Hoi da nik uste dun diferentzi haundiña.

Hor, garai baten goatzen naiz aspaldiko kontukin, soldaduskakin adibidez, Suiza re jartzen zan adibide bezala, alternatiba bezela soldaduska hemen Euskal Herrin derrigorrezkoa zanen hemen eztabaidatu izan da askotan nola egiañ...

Suizan derrigorrezekoa da, soldaduk dauzka danea hiru urte, gaztetan hemezortzi hillabete eta gero berrogei urte iñ arte jun beharra daukie urtero hillabete praktika ittea. Osea, Suiza da hortan oso herri militarizatu. Hemen beifia izan dana baiño askoz gehio.

Ordun goaindik jarraitzeo, osea derrigorrezkoa da ta hiru urtetan in beharrekoa?

Derrigorrezkoa eta urtebete baiño gehio bada, Usteet hemezortzi hillabete diela. Ta gero berrogei urte iñ arten urtero in

Ni han nau Suizak e benefizioa atateulako nere lanakin ta nik e nola benefizioa atetzen deten danak gustoa, bestela kanpo.

Hik ez dek itten nahi dekena baizik eta nola estatuk dirue jartzeon hezkuntzan estatuk e aukeratu itteo azkenen.

behar dittuk praktikak. Bateze tirok eta, gustoa juteie suizok. Hoik die bakazio espezial batzuk. Enpresa guztik libre uzte zaitue, enpresa guztik dakie hola dala ta hoi ean kalkulon barrun sartuta daun zerbait dek ta aldauko lukie gustoa baiño botazioa in gabe ezin, bestela aspaldi aldauko zuen! Baiño, nola berez nahiko harro daren suizo izatekiñ, gustoa dare Suizakiñ ta jendei gustatzen zaio hoi ittea, beste mentalidade, identifikazio klase bat daukie, ta jende gustoa ittea ta botaziokin ezin due hoi aldatu.

Ta soldaduskai buruz bai, hoi aztuta neuken, hoi arrazoi bat izan zan Alemania juteko. Juxtu-juxtu hogeita bi urtekin. Aztuta neuken baiño bai, horrek e laundu zon erabakaie hartzen.

Nei etorri zait burua nola bere garaien hoi esaten zan, Suizako adibidea o...

Baiño Suizako adibidea etzan oso ona, juxtu-juxtu beste aldekoa. Diferentzie da, jendea han gustoa juten diela. Nahi etzonak, serbizio sozialak itten zittun, igual-igual juten zan. Juxtu-juxtu hasten ai zan, hemen hasi berrik zien serbizio sozialak ta ia bazeon jutea baiño juxtu-juxtu orduntxe hasten. ze izena zon ez jutek... enaiz akordatzen, baiño jende askok...

Desertorea ez? Objetorea?

Desertorea ez, objetore bai...

Aspaldiko kontuk die, nire ia aztutzen hasita.

Ni objetore izan nitxoan, baiño ez, ofiziala ez.

Adibidez, pentsatzeet gaur eunen hemen bizi gean egoerakatik eta, ditsosozko krisi ekonomiko honen

bueltan eta pentsatzeet europar askeontzako Suiza izango dala, jarraituko dola izaten sekulako gantxoia ez? Kriston erakargarrie o... Suiza ez da gustoko adibidea, lehen esan dizutenakatik, zen Suizan boterea ez da etortzen goitik bera, betik gora etortzea ta zeini interesatzen zaio ejemplo hau.

Edozein herritarrek, lanik ez dauken norbaittek esan daike gustoa jungo nintzeke Suiza. Ba, Frantzia jun beharren inkesta ta guztik esaten due-lako han gazte asko ikasketak eta bukauta juten diela Europa alde Alemania ta,... Ta pentsatzeet tiro hoi izango dala gazten arten Suiza. Han ikusten da halako muimendue?

Ez hainbeste, ze Suizan lana ez baldin badaukek ez dek errex. Bisaduk eta, lana itteko o estudiantzeko, berez gehio beharko luke baiño nahikoa restriktibok dira. beste herri batzuk naturalagok dia ta errexagok, konbeniok itten dia unibersidadekiñ o errexago jartzeizeu... Suizak ez dizu errestaxunik ematen. Zure kontua billatzen bazu, ba bai.

Zenbat hizkuntza dakizkiz?

Inglesa ta alemana hola hizketa ittekok. Gehio ez. Hasi nitxoan, baiño ia, txinoa ikasten, urtebete o inian danea Taiwanen baiño gaiñantzen... la edade bat banun...

Ordun esan dek ezkontuta ta seme-alabak?

Alaba bat, alaba bakarra.

Ia koxkortuta ez?

Sei urte. Guaiñ hemen dabil, gustoa etortzea, bakaziotan. Aldan gehienetan etortzen gea amona ikustea baiño Kolonbia re jun beharra izaten deu ta bakaziok e neurtuta izaten die urtero, oseake... gure bakaziok izateie leku batea o bestea, bestelako bakaziok ia ez ditteu itten.

Eta, etorkizunen nola ikusteek hire... Guaiñ esan dek gañea zaretela beste enpresa, beste multinazional baten eskutan igual sartzeko aukera, igual horrek e desplazazio berri bat o aldaketa berri bat igual etorri daikela ta...

Guaiñ kontu haundiña dek alaba. Guaintxe hasi behar dek, aurtan hasi behar dik eskolan. Guaiñ arte in do hemen pargulito izango zana. Baiño aurreneko urtea guaiñ hasi behar da.

Ze hizkuntza izatea?

Hizkuntza alemana.

Hezkuntza nola izatea?

Hezkuntza izatea,.. aber, hasten die aurrena "kindergarten" esaten zaiona", nere garaien pargulito zana, ez dakit oaiñ aureskola o,... seguru guaiñ beste izen batzuk dittula, seguru. Eta han has-teie ta itten due, zenbat urte die?, ...zortzi urte ingoittue... Hasten die aurreneko urten ta itteittue sei-zazpi urte ume guztik batea, ta geroa han itten dute banaketa. Hemen garai baten, nere garaien, itten zan EGB bukatzen zanen hoi, institutua jun o... Han azkarxeo itteue, nere alabai tokatuko zaio hamairu urtekiñ ta han aukeratzten due, maixuk bateze aukeratzten due bereziki ze ikasi. Han hiru bide daude, hemen bi zien bezela, hiru. Ta hiru klase itteittue, esan dezaun bajugona o zaillera gutxigo daukena, hasteie seittun lan bat ikasten ia 13 urtekiñ, hasten die ia lan bat itteko, gero 16 urtekiñ o aprendiz bezela has-teko. Beste tarteko bat dau, baitare lan batzuk itteko o estudio tekniko bat itteko, ta gero beste, ez dakit hamarretik bi o hola, jartzeittue ia unibersidadea ju-teko. Ia gutxi gora behera, han dek dana askoz metodigokoa ta nahiak ez dik balio, maixuk diena baizik. Azkenen aukeratzeko beti daukek aukerea, noski, ez bahau konforme atera handik eta eskola pribatu baten jarri ta hik patuz geo nahi dekena in dezakek. Baiño estaduk ez dik patzen, maixuk erabakitzen badik umek ez diela balio, osea ez daukela, Hoi dek, hoi dek dana gorragea Hik ez dek itten nahi dekena baizik eta nola estatuk dirue jartzeon hezkuntzan estatuk e aukeratu itte azkenen.

Azkenen estatun planteamendue dek ume horri nola etekiñe atea etorkizunen, holako zerbait.

Hoixe da, hoixe da. Ta hala funtzionatzeo Suizan... Guaiñ, benetan inbertittu itteue, eskolak nahiko onak dittuk ta ondo juten baek, hango unibersidadek e oso onak dittuk. Dana dek publikoa ta oso ona, guaiñ, balio donantzat, balio ez donantzat,... Hamarretik bi jungoittuk unibersidadea ta beste danak, beste lekuta, ta punto. Gehio ez. Ez deu unibersidade gehio izan nahi zen bearditueu baitare fontanerok, bearditueu,... Itten dutena oso ondo da fontanero batek Sui-zan o pelukero batek irabazteoz ez injie-

nero batek haiñe baiño ez hemen bezela 600 euro ta bestek 3000 euro, baizik eta diferentzie askoz gutxigo dek. Salariok han e... diskusioa badau salario minimoa jarri o ez. Leku batzutan, kanto batzutan bai, ta bestetan ez. Diskutitzen dan salario minimona da 4000 franko osea ia 4000 euro hillen, osea beste diskusio puntu bat dek, diskusio berdiñe baiño beste puntu baten. Baiño sistema Suizoa re hoi dek. Obligatze haue jutea beaiek nahi duen lekutik baiño gero aukerak behar bezela ematen dizkie, bestela jende-ik etzon onartuko... Dek soziedade bat gorragea hemen baiño. Bere dirue inbertitzen ez duenen nahi dekena iñ baiño bestela, guk nola inpuetok patzeittu-gun, guk jartuettugu normak, dirue beti beti-gora, hean mentalidadea hoi dek, ez dek hemen bezela. gobernuko dirue merkea dek hemen, han pentsatzeie gober-nuko dirue nere dirua dek, nik zati bat jarri diatelako, ta hoi dek mentalidadea. Ta unibersidaden ezteie danak ammetittuz gurasok gustoa uzteko unibersidadek hemen bezela, jendea, balio don jendea formatzeko ta gero haiek lana in deza-ten. Dek beste mentalidade bat dek. Eskubidek ondo zerek baiño Beharrak e... Ta neire egie esan oso gorra itten zitza-itten mentalidade hau ta momentu hor-tan 13 urtekiñ erabakitzen badue nere alaba ez dijola nik nahi deten lekua, nei segurasko hoi oso gorra ingo zait. Guaiñ, ordu arte ne alabai kalidade haundiko edukazioa emangoie, hoi da kontue.

Baiño bueno,... beize gehiegi hitzein diat. Nere ze etorkizuna,... guaingoz nere alaba eskolan sartzea dek etorkizune ta hoi izangoek. Geo lantokikin ezinbaek, beste zerbaitt aldauko diau, beste zerbaitt billau, baiño momentuz etzekeat burun aldatzeko. Noiz arte? Ni sei hilla-beteako jun nitxoan Alemania, Suiza re jun nitxoan pixkat praktika itteatik ta gero ia bizi erdie baiño gehio zemakiat kanpon. Plana ittei aspaldi utzi zoat.

Ze herrian bizi zeate Suizan?

Baden do izena, Zurichetik 20 bat kilome-trota.

Zer da herrie?

Tolosan tamainokon bat, nahiko herri pol-ittue dek. Badenen dek erromatarrak agus termalea ziela ta in zuten,.

Ez dakit ze gehio galdetu... Beti be-zela, nahi badek erantzun ta bestela ez, lehen esan dek ia 20 urte damaz-

kik Itsassondotik kanpo, baiño bueno elkarriketan, aldizkari hon-tako elkarriketan betiko hiru gal-dera motz itten dizkiau ta ingoizkiat ta bueno, nahi baldin badek, o sen-titzen dekena,....

Zer duzu gustoko Itsasondotik?

Ni Itsasondoa etortzen naiz garai bateko Itsasondo ikustea: ama, ia aitte jun zan, guaiñ ama, lehen aitte-ama, ta gustoa etortzen naiz zea gogoratzea zer zan hura egie esan. Enaiz gehiegi ibiltzen guaiñ herrin, jendea ezauture ia, denbora asko ez da izaten ta egie esan etortzen naizen bakoitzen Itsasondoa diferentea da, sen-titzeet, nik ez dittuk etxe berrik ikusten,... Nik arnasa hartzeet ta usaie hartzeet, ta Beitiko iturrin ude eateet ta horta etor-tzen naiz Itsasondoa egie esan.

Hurrengo galdera ere... Ze botatzen dezu faltan Itsasondon?

Ezin det gehiegi kontestau.

Ta hau ia nibel pertsonalen eo... Iñioz izan dezun amets bat, bidaiein bat,...

Egie esan guaiñ bidaiek itten nahikoa asetuta nau. Nik amets asko re ez dau- ket. Zaille da galdera hoi kontestatzea. Ni ondo bizi naiz gaurko eunen, hola seittu zala. Ta amets bat,... ez dauket... ez zait eze okurritzen.

Hik biatzea nahi huan ta lortu huan ez?

biatatu in nahi nian ta biatatu in nian. Lan bat billatu nahi nian ta billau in nian. Famili bat... Ez, etzekeat amets gehiegi. Hola seittu dezala gauza.

Por zierto, Suizan ze, zenbat urtekiñ jubilatzen da jendea?

Berez, Suizan dek nahi donen behiñ 61 urte iñezkeo baiño, geroz eta berandugo diru gehio emateizue jubilatzeakon. Osea, berez edade ofiziala izango litzeke 65 ta gero faktorek itteittue. 65ekiñ emateizue hainbeste segun zenbat patu deken ta gero 64kin %95 o dana dala, ta hola... Eskubidea daukek 61ekiñ ia baiño...

Batzuk eongo die hor hil arte....

Usteet tope bat badaula... 67 o 68kin, holako zerbait. Baiñ gero re topek due ezeptziok ta ikusteek jendea 70 urtetik gora ta lanen, baiño nahi duelako, ez behar duelako. Nahiko bizimodu ona izateen due jubilatuk Suizan.■

Gipuzkoako partaidetzako aurrekontuak 2015

Aurten, 10 eskualdek parte hartuko dugu (Bidasoaldea, Buruntzaldea, Debarrena, Debagoiena, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea, Urola Erdia, Urola Garaia eta Urola Kosta) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Partaidetzako Aurrekontuen ekimenean. Eskualde bakoitzeko herritarrok gure eskualdea hobetzeko 2 milioi euro nola inbertitu erabakitzeko aukera izango dugu. Lehen fase honetan, herritarren ekarpenak jaso dira. Hona hemen Itsasondon apirilaren 29an egin zen prozesuan jasotako ekarpenak:



TITULUA

- 1 Goierri guztiko herrietako baliabideak partekatu
- 2 Legorreta, Itsasondo eta Zaldibi herrian dauden enpresak hirigunetik ateratzea
- 3 Mugikortasun plan osoa egin eskualde mailan
- 4 Eskualdeko ofizio zaharrak bultzatzea
- 5 Esertzeko banku estaliak eskualde osoan
- 6 Eskualde mailan egindako irisgarritasun planean jasotako ekintzak egitea
- 7 Internet azkarra iristen ez den herrietara eramatea
- 8 Eskualdeko ondasunak berreskuratu Goierriin
- 9 Nekazal jarduera berriak eta daudenak bultzatu
- 10 Murumendi eremua "biotopo" kalifikatzea
- 11 Eskualdeko balore etnografiko, arkeologiko, antropologiko eta kulturalak berreskuratu
- 12 Mendi nekazaritza eta natur eremu garatuak izan daitezen baserri eta nekazal auzoen arteko bideak berregin, finkatu edo sortu

PROPOSAMENA	BEHARRA
Herrietan dauden baliabideak amankomunean jarri eta partekatzea. Lanabesak eta tresneria ere barneratzen da	<ul style="list-style-type: none"> • Gastuak murriztu • Erabilpena optimizatu • Biltegiatzea optimizatu
Herrigunetik enpresak ateratzea eta itxita daudenen tokia berreskuratu eta egokitu	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko espazioa berreskuratu, hobetu eta zabaldu • Ingurugiro bizi kalitatea hobetu
Mugikortasun plan integral bat egitea	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumena • Auto erabilpena jaistea • Osasuna • Ekonomia
Langabezian daudenak ofizio bat dutenei erraztasunak eman lana egin dezaten	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia • Ofizio lanak galtzen ari dira
Adineko pertsonen auria eite duenean atsedean hartzeko banku egokituak izan ditzatela	Eguraldi kaxkarra dagoenean kalean dauden adinekoei babesa emateko
Irisgarritasun planak gauzatzea	Irisgarritasun planei erantzun
Internet azkarra eramateko behar diren azpiegiturak gauzatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartea konektatuta egoteko • Eskualdeko oreka lortzeko
Itsasondoko meategiak txukundu eta bisitatu ahal izateko egokitu	Kultur eta garapen ekonomiko arloei bultzada
<ul style="list-style-type: none"> • Produktu berriak sortzeko prozesuan behar den ikerketa eta ibilbidean lagundu, teknikoki eta ekonomikoki • Bertako produktuak sortu, elaboratu eta saltzeko baliabideak eta laguntza • Jarduera osagarriak, natura eta animalien bitartez eskaintzen diren zerbitzuak bultzatu 	Nekazal eremuaren garapen jasangarri eta errentagarria
	Ingurumena, bioaniztasuna, jarduera jasangarria, paisaia eder, orekatsu eta biziak. Hiritar eta gizaki orenen behar bati, "biofilia", osasunarekin lotuta baitadago
Murumendiko eremuan dauden aztarna arkeologiko, etnografiko eta kulturalak identifikatu, konpondu, berregin, seinalizatu eta ibilbide natur-kulturala sortu eta ezagutarazi	Murumendiko eremuaren multi-funtzionalitatea, jarduera berriak eta garapen ekonomikoak bultzatzea
<p>Baseri eta nekazal auzoen arteko bideak berregin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itsasondo-Urkia-Lizardi • Itsasondo -Idoiaga-Pagorriaga • Ordizia-Idoiaga • Besaingo Larrarte - Pagorriaga • Besaingo Matxinbenta - Pagorriaga • Beizamako Santa Ageda-Pagorriaga 	<ul style="list-style-type: none"> • Mendinekazaritza eta berarekin ingurumenaren zaintza • Dagoen biztanlegoa finkatu eta gehitu • Jasangarriak diren nekazal jarduerak indartu eta berriak sortu • Mendi nekazaritzak eta bizimoduak dituen zailtasunak arindu • Baserritarrak eta nekazal auzoak auzolanak eta amankomuneko proiektuak aurrera eramateko beraien arten lotzeko bideak egokitu eta sortu

Itsasondoko herri inguruko baratzen III. lehiaketa

Ekainaren 11n "Itsasondoko herri-inguruko baratzen III. lehiaketa" ospatu zen. Aldez aurretiko iragarpenik gabe, herri-inguruko baratzak bisitatu eta banan-banan baloratu genituen. Baratzen balorazioa egiteko, barazkiak hazteko eredu ekologikoan oinarritu ginen. Izan ere, eredu hau da ingurumena zein gizabanakoa gehien errespetatzen dituen, eta etxeko baratzen kultura zabaltzearekin batera, Udalak bultzatu nahi duena. Lehiaketarako **epaimahaia 3 pertsonek osatu zuten: nekazaritza ekologikoan aritzen den baserritar batek, beste-lako herritar batek eta ingurumen teknikari batek.**

Teknika honek kutsadura eragiten duten kanpo baliabideak baztertu (ongarri kimikoak, pestizidak, genetikoki eraldaturiko organismoak) eta lekuan lekuko zikloak errespetatzen ditu. Horren ondorioz, lurraren emankortasuna handitzea lortzen dugu, eta aldi berean, gure osasuna zein ingurunearena mantendu eta hobetzea. Azken finean, gure bizi kalitatea zein ingurukoena hobetzen dugu.

Ezin dugu ahaztu baratze zaintza euskal kulturarekin eta naturarekin estuki loturiko ariketa dela. Hori dela eta, horretan diharduten itsasondoar guztiak zoriondu nahi ditu epaimahaiak, gure kultura mantentzen laguntzeagatik eta egiten duzuen lan handiagatik. Aldi berean, baratza jartzeko zalantzan dauden herritarrek esperientzia honetan parte hartzera animatu nahi ditugu. DENON ARTEAN BARATZAREN KULTURARI EUTSI ETA ABERASTUKO DUGU! SEGI HORRELA! ■



HONA HEMEN LEHIAKETARAKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK:

Positiboak

- Barazki espezieen kopurua.
- Geroz eta kopuru handiagoa, puntuazio altuagoa.
- Konposta egitea.
- Ez bakarrik konpostarako edukiontzia izatea, baita era egokian izatea, eta lurraekin kontaktuan egotea. ere.
- Landare-azoziazio egokiak izatea.
- Artoa eta indaba, adibidez. Artoa lehenago hazten da eta indaba igokariaren gidari modura funtzionatzen du. Honek, espazioa aurreztu, mantenu-lana erraztu eta landare sendo eta osasuntsuak izaten laguntzen du.
- Hazitegia izatea.
- Tokiko baliabideak aprobetxatzen dira eta bertako espezieen dibertsitatea zaintzen da.
- Landare-hesiak izatea.
- Lurraren emankortasun eta kalitatean eragiten du. Baratzer "belar-txarrak" iristea ekiditen du, gehiegizko haize eta urarengandik babesten du eta inguruko faunarentzako onuragarria da.
- Loreak izatea.
- Izurriteen aurkako elementu naturalak dira.
- Euri-ura aprobetxatzea.
- Baratzen itxura orokorra.

Negatiboak

- Gehiegizko plastikoa erabiltzea
- Adibidez, lurra estaltzeko, honek lurra txirotu eta emankortasuna ahultzen du. Beste elementu artifizialen presentzia ere negatiboki baloratu da, hala nola paisaiarekin bat ez datozten alanbrezko hesiak edota uralitaren presentzia.
- Kanpoko espezieak izatea.
- Bertako barietateen gutxitzea ekartzen du.
- Landare-osasunerako produktu kimikoen erabilera.
- Biodibertsitatea gutxitzen dute, lurra eta ura kutsatzen dute eta gure osasunarentzako kaltegarriak izan daitezke.



Lehiaketaren emaitzak

1. SARIA: Herriko jatetxe batean bi lagunentzako otordua + 100 €-ko txekea
Goierriko Nekazal Kooperatiban gastatzeko: **Rosario Arza**
2. SARIA: Herriko jatetxe batean bi lagunentzako otordua: **Joxe Jauregi**
3. SARIA: 50 €-ko txekea Lurdes Janari Dendan gastatzeko: **Gus**



Iztueta baserrira bisita

I datzi ttipi honen bitartez, pasa den apirilaren 18an Urkipe eskolako 2. zikloko gurasook Iztueta baserrira antolatatu genuen txangoaren berri eman nahi dizuegu.

Hasteko, aipatu beharra dago, Intxausti sendiak daukan jakinduria eta esperientzia elkarbanatzeko garaian islatzen duten goxotasuna, ederra bezain maitagarria dela. Baserriko lanak, esnearen prozesua, behi zein txekorrei buruz ezer azaltzeko eta adierazteko garaian, gardenak bezain interesgarriak dira.

Bertara joan ginen berrogei bat itsasondoar, eta besteak beste, esnearen mundua ezaizteko aukera izan genuen. Dauzkaten behiei ematen dieten bizi kalitatea oso adierazgarria da. Haurrek ederki pasa zuten txahal eta behiei jana ematen. Bertan dagoen parketxoan ere primeran pasa zuten baserriko hiru txakurtxo politekin.

Iritsi ginenean, harrera ona izateaz gain dokumental bat ikusi/entzun, eta era berean, bertako istorioa ezaizteko aukera izan genuen. Jarraian, behientzat ongi prestaturik daukaten ukuilura joan ginen. Bertan, eder asko azaldu zigun Ainitzek bertako lanak zer-nolakoak diren eta ze modutan lantzen dituzten. Gure kezka era argian erantzuten zizkiguten. Hantxe zegoen Marije ere, eta begi bistakoa zen baserri lanetan duen eskarmentua.

Goiz eguzkitsua eta atseginaren ondoren, osasuntsu bezain goxoak lantzen dituzten jakiak dastatzeko aukera izan genuen. Beno, egia esan, dastatzeko baino bapote jateko. Esnea, zapore ezberdineko jogurtak eta izozkiak eman zizkiguten. Ze goxoak urrak, marrubi, bainila, limoi... zaporetakoak. Zapore ezberdianak eta zein baino zein goxoagoak.

Benetan diogu, errepikatze modukoa izan zela txango hura, gure inguruneaz gozatzear gain asko ikasteko aukera izan baikenuen. ■

Nerea Mendizabal: errespetuzko komunikazioa

Jadanik badira bost hilabete Nerea Mendizabal psikopedagogoaren gurean egon zela Errespetuzko komunikazioaren inguruan hitzaldi bat ematen. Gaur egun, herri edota eskola ugarian hitzaldi eta guraso eskolak ematen aunita da bera.

Nerea Mendizabalek eskainiko zigunarekin interesatuta hurbildu ginen. Bi orduko hitzaldia izan zen; oso hitzaldi mamitsua. Hainbat kontzeptu landu genuen: errespetua, hezitzailearen egitekoa edo heziketa, malgutasuna...

Horretaz gain, Nereak paradigma aldaketa bati buruz ere hitz egin zigun: "ZER DA GURE BARNEAN MUGITZEN ZAIGUNA GURE HAURREI, ADIBIDEZ, HORTZAK GARBITZEKO AGINDU ETA KASO EGITEN EZ DIGUTENEAN?". Gure autoritatea zalantzan jartzen dutela? edo beraien osasuna ezbaian jartzen dutela? eta haurrek kasu egin diezaguten oihuka hasten garenean, zer mugitzen zaigu barruan?

Hona hemen hitzaldian jasotako pauso batzuk jarraitzeko gida bat:

1.- Lortu nahi dudana helburuarekin ahaztu behar naiz (adibidez, umeak hortzak garbitu behar dituela). Ez saiatu konbentzitzen, bien arteko lotura bilatzen baizik. Saiatu ulertzen zer gertatzen zaion, esandakoa ez egiteko; zergatik ez ote duen esana egiten.

Zutaz hitz egin ordez, nitaz hitz egin:

- Behaketa: zer ari da gertatzen?
- Sentimenduak: nola sentitzen naiz?
- Beharrak: zer behar dut?
- Eskakera egin.

Gero zutaz hitz egin: Behaketa, sentimenduak, beharrak eta eskaerak egiaztatu.

2.- Ni eta zu: nola sentitzen gara esandakoa egiten ez duenean?

3.- Nire beharren arduraduna ni naiz. Ezin dugu esan: "ni horrela sentitzea zure errua da". Eta behar horiek asetuta ez daudenean, orduan emozioak ateratzen dira: beldurra, ziurtasunik eza, kezka...

4.- Jokaera desegokiak ekiditeko, lehendabizi sentimendu eta beharrei birgintu. Gure jokaerak eta sentimenduak beharren adierazpenak dira. Beharrei dibertsioa eta entretenimendua bilatu: umeari utzi proposamenak botatzen eta nola egingo dugun eta gero ideia nola parteka dezakegun pentsatu.

Hona hemen liburu interesgarri batzuen zerrenda:

- "Ser padres desde el corazón" Inbal Kashtan.
- "El sorprendente propósito de la rabia" Marshall B. Rosenberg.
- "Resolver los conflictos con la comunicación no violenta" Marshall B. Rosenberg.

Nahi izanez gero, bere web orrian liburu zerrenda zabalagoa aurkituko dituzue. Horretarako, honako urratsak jarraitu behar dituzue: **www.hartue-man.com** – baliabideak - estekak – liburu gida.

Hitzalditik atera eta hurrengo egunean, plazan, hitzaldiari buruz hitz eginen hasi ginenean, joan ginenetako batzuk, bakoitza, era diferente batetako go-goeta batera bultzatu gintuela konturatu ginen. Ziur aski, gure esperientziatik abiatuta.

Edozein modutara, oso aberatsa hura ere.

Hemendik, bere web orria ikustera gonbidatu nahi zaituztegu, bertan, hainbat artikulua, prentsa ohar, dokumentu, esteka... interesgarri daudelako: **www.hartue-man.com**

Besteak beste, hona hemen berak proposatutako jolas bat: ZUTANI (bere web orrian eta ttikliketan eros daiteke). ■



Ataun: San Martin - San Gregorio (Sara bidea)

San Martingo eliza ondoan dagoen zubitik, Agauntza erreka zeharkatu eta haren ondo-ondotik Ubarriko zubirutzetik abiatuko gara. Erreka ondotik jarraituko dugu Astigarragako atsedentoki edo parke-raino. Han, errekaen beste aldean, Joxemiel Barandiaran eskola dago. Guk aurrera jarraituko dugu erreka gurutzatu gabe. Handik, Olaluzeaga baserria baino aurreraxeago dagoen karobi zulora helduko gara. Hurrengo bidegurutzean, Mantxintxuko zubia alde batera utzi eta Zubiondo etxera inguratuko gara. Jarraian, Urezandi, Auzmendi, Aldakotxo eta Perune Zaharra baserriak pasatuko ditugu. Azken hau, Joxemiel Barandiaran zenaren jaiotetxea da. Hurrengo etxe multzoan, Sara etxea dago eta Iparraldeko etxeen antzeko egitura dauka. Perune Berrira iritsitakoan, errekaen beste aldera begiratu eta Zelabear dorretxea ikusiko dugu. Behin dorretxe ingurura helduta, Ola errotara eta San Gregorio auzoan egongo gara. Azkenik, San Martinera itzultzeko, etortzeko jarraitutako bide bera egingo dugu. ■



Iraupena: Ordu bete eta 50'
(joan eta etorri)

Ibilbidea:
San Martin- San Gregorio: 55'
San Gregorio-San Martin: 55'



01 San Martin (Ataun)



02 Sara bidea



03 Astigarragako atsedenekua



04 Olaluzeaga baserria



05 Olaluzeaga baserriko labea



06 Perune Zarra



07 San Gregorio



08 Sara etxea



09 Ola errota



Barandiaran Museoa

Jubilatuen ekintzak

Kantabriara irteera

Joan den maiatzaren 21ean Bizi Nahi elkarteko kideok irteera egin genuen Kantabriara. Bertan, Noja eta Castro herriak bisitatu genituen. Goizean, beti bezala 8:30ean Itsasondotik atera eta 10:00etarako Nojara iritsi ginen. Hamarretakoa egin ostean, Noja herria bisitatzeko denbora izan genuen eta 14:30ak alderako Viadero jatetxean bazkaria prest genuen. Bazkalosteko tertulieren ondoren, 17:00ak aldera, Castro Urdialesera gerturatu ginen, eta han ere herria bisitatzeko denbora izan genuen. Guztira 40 bat lagun bildu ginen. Egun pasa zoragarria izan zen, eta jadanik hurrengoa prestatzeko lanetan ere hasi gara!

Uztailaren 7an –

Tolosatik Alegira bidegorriz

11:00k aldera tren hartu eta Tolosara joango gara. Handik, tipi-tapa Alegira bidegorritik etorri eta Alegin bazkalduko dugu. Bazkalostean, berriaz trenez Itsasondora etortzeko prest izango gara. Zu ere animatu!

Herriko mediku eta erizainarekin hitzaldia

Ekainaren 2an elkartu ginen, kultur-gunean, Koro (herriko medikua) eta Arantxarekin (erizaina) gure osasunaren inguruan hitz egiteko. Denok arduratzen gaituen zerbait denez eta gure bizitzan eta gure egunerokotasunean eragina duen gaia izanik, gai horretan adituak direnekin solasaldia partekatzea zela hobereana pentsatuta antolatu genuen hitzaldia.



Ekainak 2ko hitzaldia

Tipi-tapa

Udaleko Ongizatea lan taldearekin eta herriko medikuarekin elkarlanean sortu den ekimena da TIPI-TAPA. Asko dira Itsasondotik abiatu eta inguruko herrietara egin ditzaizkegun ibilbideak; Aramatik barrena itzulia, edota Ordiziara nahiz Legorretara, bidegorrian barrena, esaterako. Inguruko bazter nahiz txoko ederrez gozatzeko aukera paregabea eskaintzen dute ibilbideok. Sasoi onean edota ez hain onean dagoen edozeinentzako neurri egindako ibilaldiak proposatu ditugu; ibilbide errazak, edonork egiteko modukoak. Horrexegatik, martxan jarri nahi dugun ekimen honetan parte hartzera animatu nahi zaitugu, pasean ibili ondoren, aldarre hobean sentitzeaz gain gauza gehiago egiteko gogoia izango baituzu. Eskaintza zabala da eta harrera ere ona izatea espero dugu. Beraz, jendea anima dadin eskatu nahi dugu! ■

Podologia zerbitzu berria

Itsasondoko jubilatuen talde baten eskaerari erantzunez, eta Gizarte Zerbitzuen bitartekaritza laguntzari esker, maiatzetik aurrera herrian bertan podologia zerbitzua eskuragarri izango dugu.

Oinen osasunak gure gorputz osoaren osasunean eragin handia du, batez ere adinean aurrera goazen heinean. Hankak ondo zaintzeak onura ugari ekartzen dizkigu egunerokotasunean; besteak beste, garbitasunari garrantzia ematea, oinetakoak jantzeko garaian eta ibiltzeko garaian arinago sentitzea, eta gure pausoa hobeto ematean bizkar hezurreko postura hobetzea dakar.



Adinekoak dira, hain zuzen ere, oinetako arazo handienak izaten dituztenak, eta arazo horiei aurre egiteko zailtasun handienak izaten dituztenak; besteak beste, etxetik ateratzeko arazoak dituztelako, bakarrik bizi direlako, horietako zenbait herri gunetik urrun bizi direlako, edo besterik gabe, beraien gorputz zaintzaren garrantziaz jabetzen ez direlako.

Gure osasuna bere osotasunean hartu behar dugu kontuan; fisikoki eta mentalki ondo egotea da denon helburua. Hori dela eta, ondo ez gaude nean medikuarengana joaten gara, eta gizarte arazoren bat baldin badugu, gizarte zerbitzuera jotzen dugu. Era berean, oinak ondo zaintzeko eta oinak zaintzeak ekarriko dizkigun onurez gozatzeko, noizean behin arlo honi arreta pixka bat jartzea komeni da. Hori errazago egitea da osasun eta gizarte zerbitzuen helburua, eta hain zuzen ere, horretarako jarri da martxan zerbitzu berri hau herritar guztien eskura eta prezio onean.

Eskaeren arabera mantenduko dugu zerbitzua, eta horretarako, herritarren erantzuna ezinbestekoa izango da. Beraz, anima zaitzete eta erabili herrian bertan daukagun aukera ezin hobe hau.

Saioak bi hilabetez behin egingo dira hasieran, adinekoen elkartean. Hala ere, aurrera begira, eta hala behar izanez gero, maiztasun handiagorekin egiteko aukera ere egongo da.

Azkenik, hurrengo saioa uztailaren 15ean izango dela gogorarazi nahi dizuegu elkartearen egoitzan, aurretik ordua hartzea eta izena ematea ezinbestekoa dela.

LASTER SOMATUKO DUZU ONURA ZURE GORPUTZEAN! ■



itsasondoko ((29.zk))

Maiatzak 21eko txangoa

Beste auzolan bat!



Oraingo honetan, auzolana Itsasondoko hurrek gogokoen duten txokoa egin dugu; parkean, hain zuzen ere. Urteen joan-etorriak lurzorua hondatu egin zuen, eta baldosa bigungarrien arteko tar-teak handituta zeuden; horrek erorketak eta gaizki zapaltzeak eragin zitzaizkien.

Baldosak mugitu behar zirenez, haiek altxatu eta garbitzeko aprobetxatu genuen. Denetik (dirurik ez) aurkitu genuen bertan; igel bat ere bai. Baldosa bakoitza forma ezberdinetan txikiagotuta zegoenez, oso zaila zen guztiak ongi lerrotatzeko. Horretarako, aluminiozko markoa jarri genuen, horrela baldosa zatitxoak mugitzea eragotzi eta ahal bezain txukunen jartzeko.

Bien bitartean, ohitura onak galdu gabe, hamaiketako egiteko tartetxo bat hartu genuen.

Azpimarratu beharrekoa da, oraingo honetan izan genuen parte-hartze zabala; gizonzkoak, emakumeak eta 2 eta 3 urte arteko haurrak ere beraien parte jarri zuten auzolan honetan.

Auzolan honen bideoa ikusi nahi baduzu, sartu Youtuben eta bilatu "Itsasondo Auzolan 2015".

Eskerrik asko guztiok zuten parte hartzeagatik. Hurrengo auzolanean itxaroten zaituztegu. ■

V. herri eguna, guztiona!

Ekainaren 13an V. Herri Eguna ospatu genuen. Gure asmoa, arratsaldean jolasekin hastea zen, baina jende gutxi izena eman zuela eta jolasak bertan behera geratu ziren. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, 18:30ak inguruan Arbelaitz elkartetik poteo musikatuari hasiera eman genion. Itsasondoa dezente bildu ginen, eta musikaz alaituta Nautiko, Jubilatune eta Kaxintanetik pasa ginen. Gero, afaltzeko ordua iritsi zen eta gaztetxeko aterpean ogitarteko goxo-goxoak banatu genituen. Tripa beteta genuela, aurreko lau Herri Egunak gogoratzeko argazki emanaldia izan genuen. Zenbat hazi diren gure txikiak eta zahartu gazteak zirenak! Momentu politak oroitu ondoren, kontzertuei hasiera eman genien Bilboko Haxotz taldearekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu aurten hirugarren-goz izan baitira Herri Eguna ospatzen. Urtetik urtera gehiago gozatu dugu haiekin eta zorte onena opa diegu. Amaitzeko, Ordiziako gaztetxoak izan genituen: Botaik eta Koplaka.

V. Herri Eguna gazteok antolatu dugun azkena izan dela erabaki dugu. Pena izugarria ematen digu egun hau galtzeak, ilusioz eta gogotsu ekin baikenion bide honi, baina urteak aurrera joan ahala zailago egin zaigu antolaketa honekin jarraitzea.

Horrexegatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu Itsasondoko herritar guztiei, bost urte hauetan eskainitako laguntzagatik, ekintzetan parte hartzeagatik, motibatzeagatik eta gehienbat gure helburua, herria elkartzearan helburua lortzen laguntzeagatik. Oso harro gaude egindako lanaz, eta Herri Eguna, neurri batean, Itsasondoko egun erreferente bilakatzeaz.

Gure ondorengoek egun hau berreskuratu, eta, gutxienez, hamar-garren Herri Egunera iristea espero dugu. ■



Ongizate lan-taldeak antolatutako dokumental emanaldia

Aurreko zikloek izan zuten arrakasta ikusita, ongizate lan-taldetik dokumental edo pelikula emanaldiekin jarraitzeko asmoa azaldu genuen, eta baita antolatu ere. Martxoaren 5ean, Emakumearen egunarekin lotuta, Nocem Collado-ren «La mujer y el agua» dokumentala izan genuen ikusgai. Martxoaren 18an, Korrika zetorrela eta gure hizkuntza den EUSKARAren inguruko dokumentala izan genuen. Apirilaren 15ean, aldiz, kontsumoaren gaia ukitu genuen, eta Edu Gonzalez-en «Euskal herria: ezkutuko zorra» izan genuen ikusgai. Azkenik, udaberriko zikloa bukatzeko, apirilaren 30ean, indarkeriaren arlo desberdinak aitzaki hartuta, Bertha Gaztelumendiren «Mariposas en el hierro» dokumentala ikusteko aukera izan genuen.

Oraingo ziklo honetako parte-hartzea ez da aurrekoetan bezain arrakastatsua izan. Hala ere, gerturatu zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, eta aldi berean, udazken/negu aldean ere beste ziklo bat antolatuko dugula jakinarazteko aprobetxatu nahi dugun aukera hau. ■

*Oharra: Zuetako norbaitek ziklo hauetan emateko moduko dokumental edo pelikularik ezagutzen badu, eskertuko genizueke udaletxean eskaria egin eta zein den azaltzea. Benetan eskertuko dugu zuen proposamena.



Herri Urrats

Urtero bezala, Herri Urratsera joateko autobusa antolatu zen Itsasondotik. Goizean goiz, baina gogoz, abiatu ginen Senpereko urteroko zitara. Hamaiketakoa, ibilalditxoa eta bazkari ederra egin ondoren, iluntzerako berriz ere herrian geunden denok. Gogoratu aurtengo Herri Urratsean egindako diru-bilketa Ziburuko ikastolarentzako orubea erosteko eta han ikas-tola berria eraikitzeko erabiliko dela. ■



Korrika 2015

Martxoaren 23ko goizaldean pasa zen Korrika 19 gure kaleetan zehar. Gauez eta euripean, baina umorez ekin zioten lasterka egiteari herriko dozenaka korrikalarik. Aurretik, motorrak berotzeko eta herria girotzeko, triki-poteoa antolatatu zen hainbat euskaltzalek herriko elkarte eta tabernetan zehar.

Jendearen parte-hartzea bikaina izan zen, eta aldizkari honek ematen digun aukera aprobetxatu nahi genuke, bertan parte hartu zuten guztiei eskerrak emateko. ■



Urkiko Maiatzeko jaiak

Maiatzaren 2an, arratsaldeko 18:30etan, eman genien festei hasiera.

XXXII. Mus txapelketa ospatu genuen, eta irabazleak Juan Mari Arza eta Joxe Luis Aranburu izan ziren.

Ondoren, afaria egin genuen elkarteetan, LAJA eta MIKEL trikitilariak girotuta.

Maiatzaren 3an (igandea), 10:00etan, ermitan ospatutako mezarekin eman genien hasiera Gurutze Deunaren Egunari. Ondoren, elkarteetan hamaiketako egitera jende andana hurbildu zen; goiko eta beheko jangelak bete egin ziren. Eguerdi ingurua, EPELDE eta LUTXURDIO trikitilariak girotu zuten plazan.

14:30ean bazkaria egin eta arratsalde-iluntzerako indarrak hartuta, XXXII. Toka txapelketa ospatu genuen.

12 emakumezko eta 21 gizonezko parte hartu zuten. Emakumeetan Lurdes Lasa izan zen garaile, eta bigarren, Karmen Arza. Gizonezkoetan, berriz, ezustekoa eman zuten etorkizun handia izan dezaketen bi gaztetxok. Txapelduna, Aitor Garmendia izan zen; eta, azpitxapelduna, Julen Zabalua.

Ondoren, erromeriaz gozatzeko aukera izan genuen, egun guztian trikitia jotzen aritu ziren EPELDE eta LUTXURDIO trikitilariak.

Azkenik, sari banaketa egin ondoren, Urkiko jaien alde zoketatzen den antxumearen zenbakia atera zuten. Zorteko Itsasondon errifa erosi zuen Milagros Luluaga izan zelarik. ■



(lorezaintza)

Callistemon Citrinus

Azalpena:

Eskuila gorria edo erratza dira callistemon citrinus landarea izendatzeko euskarazko ohiko izenak (Citrinus, limoi lurrina daukako). Zuhaixka honek baldintza naturaletan 5 metroko altuera har dezake, baina etxean landatuta askoz ere baxuagoa ateratzen da, eta ez du bi metro eta erdi baino gehiagoko altuera hartzen. Gainera, oso zaintza erraza du, kimaketa bidez egiten da, eta ez dago landareak lekuak gehiegi hartzeko arriskurik. Lekuak apaintzeko oso baliagarria da, dituen kolore iluneko hosto larrukarek esker. Udaberrian eta udan egoten dira zuhaixka hauek ikusgarrien, orduan ateratzen baizaizkie adaxketatik loreak. Lore horiek kolore gorri biziko hariz osatuak daude.

Lorategietan taldeak osatuz edota ale bakan gisa erabil daitezke, baina baita balkoian lorontzi batean sartzeko ere.

Jatorria:

Australian du jatorria, eta bere taldeko gainerako 11 espezieak bezalaxe, landare hau Mirtazeoen familiakoa da.

Nola zaindu:

Callistemon citrinusak eguzki asko behar du. Kanpoaldean badago, eguzkitan jartzea komeni da, eta barruan badago, berriz, ahalik eta leku argiengan (eguzkiak zuzenean jotzea komeni da). Ez zaio hotza gustatzen, eta are gutxiago izotza.

Materia organikodun lurra nahiago baditu ere, lurra ongi drainatuta badago, edozein lurretan ateratzen da.

Landarea lekuz aldatu behar bada, leku finko batera eramateko-edo, udaberrian aldatzea gomendatzen da. Errorizarentzako edo errodoendroarentzako erabiltzen den substratu azidoak mesede egiten dio.

Lehorraldian oso ongi irauten duen landarea bada ere, udan ur asko botatzea eskertzen du. Neguan berriz, ur gutxi bota behar zaio, egoneko egoeran sartzen da eta.

Urtero konposta bota behar zaio.

Urtero kimatzea komeni da, eta loreak atera ondoren, zimelduta dauden loreak kendu behar zaizkio. Hala, landarea forma hartzen joaten da.

Lorategietan dauden ohiko gaixotasun eta izurrien aurrean oso gogorra da landare hau.

Landatutako haziak ernatuz biderka daitezke, udaberrian (3 bat astetan ernatzen dira); edota aldaxken bidez, udan. ■



Maixabel Garmendia Izadia Loradenda.
BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Piper, berenjena eta erretako tipularen hostopila, antxoia eta atunarekin

2 piper, 2 berenjena eta 2 tipula (tipulak aluminiozko paperean bilduta lehenago egin daitezten) labean sartu. Behin erregosita, hozten utzi eta zuritu. Ondoren, olio, gatza eta ozpinarekin ondu.

Hostopila egiteko, izoztutako plaka bat erosi edozein dendatan edo gozotegian, aurretiaz eskatuta.

Hostopila (hojalde) luzatu eta nahi diren neurriko laukitxoak egin, gutxi gorabehera 15x7 cm-koak. Gero, hostopilak labean sartuko ditugu azukre pixka bat gainean botata (karamelatzeko) eta zulotxoak egingo dizkiogu asko igo ez dadin.

Behin laboratu eta hoztua dagoenean, barazkiak eta antxoak edota atuna gainean jarri eta ardi-mihi (kanonigo-belar, balerianela) edo entsalada batekin lagunduta jan dezakegu.

ON EGIN! ■



Asier Arbilla
Arbeletxe jatetxea. LA SEU D'URGELL
www.arbeletxe.com
973 361 634

Liburuaren txokoa

E-liburutegia

Gogorarazi nahi dizuegu, liburu elektronikorako liburuak ere mailegatu daitezkeela. Zerbitzua erabili nahi baduzu **itsasondokoliburutegia@gmail.com** helbidean edota udaletxean bertan emango zaizkizue argibide guztiak.

LAM zerbitzua udaran

Zerbitzu hau ez da izango abuztuan. Irailean jarriko dugu berriro martxan. Honen bidez, zure herriko liburutegian topatu ez duzun liburua, beste liburutegi batetik ekartzeko aukera ematen dizuegu. Horretarako nahikoa duzu liburutegiko helbidean edota udaletxean bertan eskaera egitea (zure izen abizenak, liburutegiko txartelaren zenbakia eta liburuaren izena eta egilea).

Nola jakin zuk nahi duzun liburua non dagoen?

Helbide honetan sartu zaitezte (http://www.katalogoak.euskadi.net/cgi-bin_q81a/abnetclop/O9327/IDd6b0d34a?ACC=101). Liburuaren izenburua jarri bilatzailean eta zein herrietako liburutegian duzun adieraziko dizu, baita libre dagoen edo ez, ere.



Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Emaitza BAIKORRA lortu genuen bileran.	Emaitza ONA/POSITIBOA lortu genuen bileran.
Irakasle BEZALA aritu zen lanean.	IRAKASLE aritu zen.
Sorginak printzea IGEL BATEAN bihurtu zuen.	Sorginak printzea IGEL bihurtu zuen.



Oharrak



2016ko egutegia osatzeko argazki bilduma

2015eko otsailaren 13an 400 urte bete ziren Itsasondok Ordiziarekiko in-
dependentzia lortu zuela. Hori dela eta, 2016ko udal egutegia osatzeko
argazki zaharren bilduma egin nahi dugu. Hasi etxeko txokoak astintzen,
eta argazki zahar-zaharren bat bilatuz gero, ekarri udaletxera. Eskaneatu
eta berriz bueltatuko dizugu originala.

Zuntz optikoaren hedapena

Movistar enpresa bere telekomunikazio sarea berritzen ari da eta zuntz
optikoa hedatu nahi du Itsasondoko herrian. Aldaketa horrek, abiadurari
eta kalitateari dagokionez, abantailak ekarriko lituzke.
Aldaketa hori gauzatu ahal izateko, komunitateetako presidenteen baime-
nak behar dira, eta jada hasi dira horiek biltzen.
Zerbitzua bezeroei helarazteko, gutxieneko hedapen kopurua lortzea bila-
tzen ari dira. Enpresak Udalari esandakoaren arabera, sarearen berrikun-
tzak ez dauka gain-kosturik erabiltzaileentzat (sare berriaren bidez eskaini
daitezken hautazko zerbitzu berriek, aldiz, izan dezakete gain-kostua).
Informazio gehiago jasotzeko udaletxera zuzentzea proposatzen dizuegu,
eta beharra izanez gero, Movistar-eko ordezkariekin bilera antolatzen saia-
tuko gara.

Kultur Agenda

UZTAILA

- 3 eta 4:** Garagardo festa, Arbelaitz elkarteak antolatuta.
- 7:** Tolosatik Alegira paseoa Bizi Nahi elkarteko kideekin.
- 7, 14, 21 eta 28:** Tipi-Tapa, ongizate fisikoa nahiz mentala hobetzeko paseotoxa, 17:00etan, herriko plazan.
- 13:** Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 14:** Ongizate lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 15:** Herri Bizitza lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 17:** Uda kanpaina bukaera.
- 30:** Bingoa, Bizi Nahi jubilatuta elkartean.

ABUZTUA

- 14:** Festa bezperako bazkaria Bizi Nahi jubilatuta elkartean.
- 15:** Andra Mari jaia.

IRAILA

- 5, 12, 19 eta 26:** 0-2 urte bitarteko Haur Masaje tailerra, 10:00etan, udaleko lehen solairuan.
- 7:** Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 8:** Ongizate lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 9:** Herri Bizitza lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 12, 13 eta 14:** Urkiko Santikutz jaia.
- 18, 19 eta 20:** Itsasondoko jaia.
- 24:** Bingoa, Bizi Nahi jubilatuta elkartean.
- 25:** Pintxo-potearen hasiera.
- 26 eta 27:** Aralarren gau magikoa pasatzera irteera.
- 27:** Jubilatuen eguna.

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881 170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrik	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((29. zk))) Uztaila-iraila 2015

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Alberto Ruiz
Aranzadi Elkartea
Asier Arbilla
Belen Mendizabal
Bizi Nahi jubilatuta elkartea
Danel Etxeberria
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haurreskolako Hezitzaileak
Ibon Aginaga (UEMA)
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Luis Aranburu
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mertxe Orte
Mikel Mendizabal
Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriko kanto bizi baldin bazara, eta, ko-
rreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean
jaso nahi baduzu, jarri gurekin harrema-
netan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
SS-297-2010 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
IRAILEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**